

# **Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain**

Zenbait ezaugarriren deskripzio kuantitatibo eta kualitatiboa

Imanol Esnaola

© Imanol Esnaola

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-86967-98-8

Lege-gordailua: BI-705-99

Inprimategia: Lankopi S.A. Colon de Larreategi 16. BILBO

Azaleko diseinua: Iñaki Marko

Banatzaileak: UEU. Concha Jenerala 25, 4. BILBO telf. 94-4217145

e-mail: [bulegoa@ueu.org](mailto:bulegoa@ueu.org) [www.ueu.org](http://www.ueu.org)

Zabaltzen: Portuetxe, 88 DONOSTIA

## FITXA TEKNIKOA

Ikerketaren Izenburua: *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain. Zenbait ezaugarriren deskripzio kuantitatibo eta kualitatiboa.*

Eragile-babeslea: Udako Euskal Unibertsitatea

Ikerketaren Zuzendaria: Imanol Esnaola

Ikerlari-laguntzaileak: Elortza, Eneka  
Olano, Amaia  
Santakruz, Aloña

Hasiera data: 1995, urriak 1

Amaiera data: 1997, uztailak 30

Laburpena: Gaur egungo gazte euskaldunen arteko hizkeraren ezaugarri linguistiko zenbaiten azterketa. Arreta berezia jarri dugu “gazte kutsua” ematen dioten elementuak aztertzen. Ondorioa: hizkera honi “gazte kutsua” ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira gehienbat eta ez dago diferentzia nabarmenik zonalde soziolinguistiko desberdinen artean. Aldiz, edonongoak direla ere, euskararen erabilpen funtzionala egiten dutenak dira erdararekiko menpekotasun txikiena agertzen dutenak.

Hitz Gakoak: Euskar; gazteak; hizkuntz ukipena; maileguak; kalkoak; codeswitching; kidekoen arteko hizkera; operatzaile pragmatikoak.

### Ikerketa erlazionatuak:

Izenburua: Hezkuntzan erabili beharreko hizkuntzaren egokitasuna egungo gazte hizkeraren ahozkaritza aztertuz.

Babeslea: UPV-EHU (096.230-HA007-95)

Zuzendaria: Adolfo R. Bornaetxea

Ikerlariak: Barruso, Agurne  
Larrazabal, Lutxi  
Esnaola, Imanol

Data: 1996, irailak 30



## Aurkibidea

<b>Aintzinsolasa:</b> .....	<b>7</b>
<b>1.- Sarrera</b> .....	<b>9</b>
1.1.- Aurrekariak .....	9
1.2.- Ainguraketa teorikoa .....	9
1.3.- Helburuak .....	10
1.4.- Egoera soziolinguistikoa .....	10
1.5.- Euskararen batasuna eta estandarizazio prozesua .....	11
1.6.- Kontzeptuen azalpena .....	12
<b>2.- Prozedura eta metodologia</b> .....	<b>17</b>
2.1.- Laginketa eta lagina .....	17
2.2.- Lan hipotesiak eta azalpenak .....	19
2.3.- Materialea lortzeko erabilitako metodologia .....	21
2.4.- Materialea aztertzeko erabilitako tresneria eta lorturiko ondorioak zein testuingurutan kokatu behar diren .....	22
2.5.- Materialeak nola prestatu diren .....	23
<b>3.- Emaitzak</b> .....	<b>25</b>
3.1.- Ezaugarri orokorrak .....	25
3.2.- Herriz herri, eremu soziolinguistikoak .....	26
3.3.- Subjektuka, ezaugarri soziolinguistikoaren arabera .....	28
<b>4.- Ondorioak</b> .....	<b>31</b>
<b>5.- Eranskinak</b> .....	<b>33</b>
1. eranskina: Kode alternantzia eta mailegatzea .....	33
2.     “     : Gazteen hizkeraz zenbait aipamen .....	37
3.     “     : Zer dira operatzaile pragmatikoak? .....	43
4.     “     : Operatzaile pragmatikoen azterketa, emaitzak xeheago .....	49
5.     “     : Lekukoen fitxategia .....	56
6.     “     : Formulak .....	57
7.     “     : Prestasun hiztegiaren emaitzak .....	67
8.     “     : Ezaugarri soziolinguistikoaren arabera subjektuen sailkapena .....	68
9.     “     : Subjektu bakoitzaren emaitza nagusiak .....	76
10.    “     : Elkarriketen transkripzioa .....	78
11.    “     : Eztabaidarako testuak .....	153
12.    “     : Lekukoen fitxak .....	155
<b>6.- Bibliografia</b> .....	<b>157</b>
<b>7.- Eskerrak</b> .....	<b>158</b>



## Aitzinsolasa

Gazteen hizkeraz hamaika eztabaida izan da gure artean azken mende laurden honetan. Ikastoletatik edo euskarazko ereduetatik ateratako gazteek ez dutela behar bezala hitz egiten euskaraz, euskara estandarra ez dela euskara bizia, euskara baino euskara eta erdararen arteko nahasketa dela (“euskañol” izenez ezagutua)... Bistan da, honek guztiak gaiarekiko dagoen ardura adierazten duela, eta hori zerbait bada. Arazoaren aurrean, ordea, larritze hutsa baino zerbait gehiago egin beharrean gara. Alegia, negarrak ez du zauria sendatzen. Arazoa non dagoen ezagutu behar da lehen lehenik, aurrez aurre begiratu zauriari, eta odol eta haragi gordinaren artetik sartu jostorratza. Begirada zorroztu behar dugu, gure burua jantzi.

Ikerketan aurreratu ahala gaiaren konplexutasunaz ohartuko da irakurlea. Izan ere, gazteen hizkuntz ereduaren inguruko gogoetak egiteak aldeztu aurretik zenbait pausu ematea eskatzen du. Lehen lehenik ahozko diskurtsoa dela onartu behar dugu (beraz ez da idatzizkoaren baliapide berdinez baliatuko): bestetik, kideen artekoa dela (ez entzule orori zuzendua): gainera gazteena (ikerketan ikusiko dugunez ezaugarri bereizle oso garrantzitsua), eta batez ere bi kultura erraldoiren adierazpidea diren gaztelera eta frantsesarekin hizkuntz ukipen eta gutxiagotze egoeran dagoen hizkuntza bateko hiztunak direla. Eragile horien guztien garrantziaz jabetzen baldin bagara esku artean tresna aski indartsuak izango ditugu gazte euskaldunen gaur egungo hizkera aztertu eta baloratzeko.

Kezka horrek bultzatu ninduen gai honen inguruko doktorego tesiari ekitera, eta halaber, ikerketa hau burutzera. Beraz, hemen datorrena ez da lehen inguratze bat baizik. Ez du errealitate horren argazki zehatza izan nahi, aski zaigu joera nagusiak zein diren somatzearekin eta etorkizunari begira ikerketa bide hau zabalik uztearekin. Izan ere, gai honetan bada zer jorratua. Hizkuntz alderdi bakoitzak aparteko behaketa merezi duen txokoa da, ez hizkuntzalaritzan soilik, ordea. Soziolinguistika, psikolinguistika edo soziologiak landu beharreko alorrak ere badira benetan gazte euskaldunen hizkeraz zerbait ulertzera iritsi nahi baldin badugu eta hauen bitartez euskara eta euskal kulturaren etorkizuna ahalik eta sendoen izan daitezen egin beharrekoak egin nahi baldin baditugu.

Aurrera, bada, irakurle, sar zaitez ahalegintxo honen bihotzean eta arretaz begiratu esandakoa, batzutan bat egingo duzu ondorioekin eta besteetan, berriz, ez. Batak zerbait ikasi duzula esan nahiko du eta besteak, oraindik badela zer ikertua eta zuk ere baduzula zer esanik mundutxo honetan. Biak baliagarriak, biak beharrezkoak. Ongi etorri.

**Imanol Esnaola**  
**Lezo, 1997, irailak 29.**





# 1. SARRERA

## 1.1. Aurrekariak

Giza taldeen hizkeraren azterketak tradizio handia du mundu osoko hizkuntzalari eta soziolinguisten artean. Fergusonek diglosia kontzeptuari adiera berria eman zionetik, soziologiarako arreta handitzearekin batera etengabekoak eta oso aberatsak izan dira sail honi egin zaizkion ekarpenak. Ferguson, Labov, Bernstein, Amerika, Afrika, Asia, pobreak, aberatsak, auzokideak, ikaskideak, lankideak... hamaika azterketa eta aztergai izan da.

Gurean, beranduxeago bada ere, mota honetako ikerketei iritsi zaie garaia. Mundu-ko kultur potentziak edo hauen koloniak izandakoen neurriko arretarik jaso ez badugu ere, apurka-apurka ikuspegi soziologikotik egindako hizkuntzazko azterketak areagotzen ari zaizkigu. Ondorioak behar besteko arduraz aztertu eta gizarteratuak ez baldin badira ere, gainerako herrien historiak erakusten digun bezalaxe, gu ere bide hau egin beharrean gara, atzera ezineko bidea da, antza.

M.J. Azurmendi<sup>1</sup> eta X. Isasi, L. Erriondo eta F. Rodriguezek<sup>2</sup> egindakoak dira argitaratu diren ekarpen nagusiak. Bi ikerketok ikuspegi desberdinetatik eginak badira ere euskaraz eskolatutako ikasleria eta hauek darabilten hizkera dute aztergai.

Azurmendiren ikerketek hizkuntzazko eta psikosoziolinguistikazko azterketen bidez 10 eta 17 urte bitarteko gazteen oinarritzko lexikoa aztertzen du. Erriondo, Isasi eta Rodriguezen lanak berriz, euskaraz eskolatutako gazte euskaldunen elebiduntasun indizea aztertzea du helburu. Bai batean zein bestean, bi ikerketen arteko aldeak nabarmenak badira ere, agerian gelditzen da euskal hiztunen gaitasuna, erderarekiko ukipenean bizi diren heinean, erdal ekarpenen geroz eta menpekoago direla. Egoera honek euskarari berari, euskarazko diskurtsoan bertan lekua kentzen dio, eta elebiduntasuna, azken batean, hiztun hauen lexikoa neurri handi batean baldintzatuz, erdararen aldekoa bihurtzen da.

## 1.2. Ainguraketa teorikoa

Gurearen moduko ikerketarik ez dugu ezagutzen (helburu zein metodologiaz kideko denik). Arestian aipatu ditugun M.J. Azurmendi eta L. Erriondo, X. Isasi eta F. Rodriguezen lanek ukipenaren ondorioak aztertzen dituztenez gure helburu horrekin bat egiten dute, gainerakoan: aztergai dugun populazioa, aztertu nahi den hizkera mota edo aztertzeko erabilitako parametroak desberdinak dira. Gauza bera esan dezakegu ezagutzen ditugun beste zenbait ikerketez. Multilingual Matters-en *Codeswitching* izeneko alean agertzen diren ikerketa zenbait kidekoak dira honetan edo hartan. Esaterako: Myers Scotton-ena<sup>3</sup>, Gysel-ena<sup>4</sup> edo Goyvaerts-ena<sup>5</sup>.

<sup>1</sup> M.J. Azurmendi (1991): "Algunos aspectos socio-culturales y socio-lingüísticos del léxico disponible de la población escolar bilingüe euskara-español". In Anuario del Semanario de Filología Vasca "Julio de Urquijo". Gehigarriak, XIV.

M.J. Azurmendi (1990): "Análisis cuantitativo de la "distancia interlingüística" de la "corrección lingüística" en el uso actual del euskara". In Symbolae, Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae, separata.

<sup>2</sup> Erriondo, L., Isasi, X. eta Rodriguez, F. (1993): *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna*. Bilbo U.E.U.

<sup>3</sup> Myers-Scotton, C (1991) "Comparing codeswitching and borrowing" in *Codeswitching*, Multilingual Matters. Eastman.

<sup>4</sup> Gysel (1991) "French in urban Lubumbashi swahili" in *Codeswitching*, Multilingual Matters. Eastman.

<sup>5</sup> Goyvaerts (1991) "Codeswitching in Bukavu" in *Codeswitching*, Multilingual Matters. Eastman.

Denan den, guk ez dugu ezagutzen gurearen antzeko ikerketarik eta arestian aipaturikoen ekarpenez eta gure kupeletik ateratakoekin egin dugu honen diseinua.

### **1.3. Helburuak**

Arestian aipatu ditugun ikerketek lexikoa aztertu izan dute. Alegia, lekukoek idatziz emaniko hitz zerrendak izan dituzte aztergai. Azterketa hauek, bestalde, eskolarekin oso estu loturik egon izan dira, alde honetatik oso talde homogeneoak izan direlarik. Gurean, ordea, bestelako ikuspegia hautatu dugu. Izan ere, interes berezia genuen, batetik, hiztun heldua-goak behatzeko, bestetik lagun arteko diskurtso naturalean talde honen diskurtsoari “gazte” izaera ematen dioten elementu linguistikoak aztertzea eta ez lexikoa soilik. Alegia, eta galdera eginez, gazte euskaldunak, lagunartean euskaraz ari direnean zer nolako diskurtsoa darabilte? Zerk ematen dio “gazte” kutsua? Kutsu horren ezaugarriak zein dira, zenbatekoa da erdararen ekarpena? Eta euskararena? Igartzen ote da euskarazko eskola-tzea? Nabaritzen ote da honen eraginik?

Bi hitzetan esanda, bada, gure helburua, lagunarteko gazte euskaldunen diskurtsoa aztertu eta “gazte” kutsua ematen dioten elementuen hizkuntz jatorria argitzea izango da.

Aurreragoko ataletan azalduko dugu zein izango diren interesgune zehatzak eta zein bitarteko jarriko ditugun interesgune horiek aztertzea.

### **1.4. Egoera soziolinguistikoa**

Laginaren ezaugarriak aurrerago aztertuko baldin baditugu ere, datu horiek, bistan denez, egoera soziolinguistikoko orokorraren baitan ulertu behar dira. 1996ko Soziolinguistikazko Inkestaren<sup>6</sup> arabera Euskal Herrian eta aztergai dugun adin taldearen (16 eta 24 urte bitartean dagoena) baitan % 14 baino ez da lehen hizkuntza euskara duena eta % 81 berriz erdara duena. Hizkuntza-gaitasuna aztertuz, berriz, % 22 dira elebidunak, eta hauen artean % 29,9 baino ez euskal elebidunak, % 32,1 orekatuak eta %38 erdal elebidunak.

Multzo honi begira jarriz gero, euskaraz bizitzeko, eta ondorioz euskaraz hitz egiteko aukerak murrizak dira oso. Izan ere, euskararen erabilerak, Soziolinguistikazko Inkesta-ren arabera, “familiar, gertuko komunitatean eta zenbait eremu formaletan euskaldunek euskara gehiago erabiltzen dute erdara baino”. Hala eta guztiz ere, horrek esan nahi duen gauza bakarra da euskaldun bat aurrean topatuz gero baino ez dela egiten euskaraz eta gaitasun orokorra % 22koa baino ez bada, nahikoa lan bada euskaldun bat topatzen. Gauza beretsua topatzen dugu adin talde honen gaitasuna aztertuz EAEn euskal elebidunak %38 inguru besterik ez baitira, Nafarroan eta Iparraldean berriz, %11. Datu hauen ondoan, elebidun hartzaileenak ere aztertu ohi dira. Guk egindako azalpena, bada, aukeran murrizta dela uste izan dezake baten batek. Gure aburuz ordea, beharrezkoa da era honetan ikustea lagun arteko diskurtsoa ez baita diskurtso formal, funtzionari batekin izan dezakeguna, esaterako, eta beraz, komunikazio joria eskatzen du. Gazteek euskararekiko duten jarrera aztertzea egindako zenbait ikerketetan<sup>7</sup> komunikatzeko erraztasun eza jo izan dute gazteek eurek

<sup>6</sup> Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996, Euskararen Jarraipena II.

<sup>7</sup> Agirre, L., Franko, A. (1989) “Gazteak eta euskara zonalde euskaldun batean” in Jakin 54. Eztabaida taldeen bitartez egindako ikerketa kualitatiboa da. Bertan erdara jotzeko maizenik agertzen diren arrazoien artean, “Euskararen mugak: Hizkuntzen prestigioa” atalean, besteak beste, honako hau ageri da: “Euskarak ez du balio gauza guztiez hitz egiteko” eta honela arrazoitzen da: “Gazte hauei gai edo arlo berezietan euskara ez zaie espresatzeko baliagarria gertatzen eta gai batzuez euskaraz hitz egiteko ez dituzte espresioak ezagutzen.” Ematen

zenbait gaitan erdarara jotzeko arrazoitzat. Alegia, praktikotasunaz ari gara, euskaraz era arrunt batean eta hautatutako hizkuntzari baino esan nahi denari gehiago erreparatzen zaion eremu batez.

Egoera soziolinguistikoa halako hizkuntz iharduerak zailtzeko aproposa da guztiz. Izan ere, aipatu ditugun datuen ondoan gaztediaren inguruan eraikitako kultur ereduaren ekarpena axal-axaletik aztertuz bakarrik ikusten dugu inertzia ia guztiak erdararen aldekoak direla. Izan ere, zein da gazteek gustoko duten telebista, irrati eta aldizkarietan egiten den eskaintzaren euskarazko portzentaia, zenbatekoa musika, dantzatoki eta publizitate-moda konplexuan? Benetan eskasa. Hori dela eta, bada, euskal zein erdal gazteek jasotzen duten kultur eredia nagusiki atzerrian eta erdaraz eraikia da.

Gaur egun, gazte askorentzat hezkuntza formala baino ez da euskal kulturaren bizitzeko duen aukera bakarra. Arestian esan bezala, ordea, hezkuntza eredu honek hizkuntz eredu bakarra, normatiboa, bultzatzen du. Hiztunak, berriz, bere beharrian komuni-katiboak asetuko baldin baditu, hizkuntz eredu aberatsagoa behar du. Hizkuntz egoera normala den komunitateetan arazoa beste maila batekoa da. Gurean, berriz, hiztuna bera, hizkuntz eredu bakarrarekin hamaika funtzio desberdin betetzera kondentatzen du, herren uzten du. Hezkuntza formalaren mugak agerian jarri dituzten zenbait lanek, zeharka bada ere, esan nahi dugunaren irudi lagungarria eman diezaguket<sup>8</sup>.

### ***1.5. Euskararen batasuna eta estandarizazio prozesua***

Egoera soziolinguistikoaz esandakoak esanda euskararen batasuna eta estandarizazio prozesuaz hitz bi egin beharrean gara.

Euskararen historian 1968an Euskaltzaindiak egindako biltzarra da batasunaren biltzarra. Ordura arte eredu baturik ez izanak, alegia, euskalduneria osoari begira eginiko eredu batua, euskarazko produkzioa neurri handi batean euskalkiaren eremura mugatu du. Eremu honetan, ordea, itxurazko indarririk izanez gero gaitz erdi! Izan ere, euskarak ez du kaleratzeko biderik izan eta ahozko transmisioz hedatu da gainerako hizkuntzak, ahozkoak gain idatzizkoa lehentasunez garatzen zuten bitartean. Euskara idatzizko kodifikaziotik eta hizkuntz eremu formaletatik kanpo gelditu izanak (kultur eta nazio zapalketa eta bazterketa prozesuaren kariatz), euskara eremurik intimoenetako hizkuntza izatera bultzatu du. Eta hortxe irau du, familian eta lagunartean.

Euskarak familian eta lagunartean irau du bizirik batez ere. Eta horren kezu izan gara euskaldunok azken mendean, izan ere bai baitzirudien euskara ez zela gainerako hizkuntzen maila berean idatziz zein ahoz funtzio formalenak betetzeko. Eta hutsune hori betetzera zetorren batasun prozesua. Koldo Mitxelena hizkuntzalari ospetsuak berak, euska-ra batuaren aldeko erronka aurrera ateratzearena bere eskutan hartzen duenean **irakaskun-tza eta administrazioari kode modernotu bat eskaintzeko nahia** du xedetzat (Michelena, L.

---

dituen adibideen artean insultatzea edo politikaz hitz egitea daude.

<sup>8</sup> **Novak, J.D (1996):** *Hezkuntza, teoria eta praktika*. Bilbo, UPV. (170. or.) “eskola zereginek gizarteak egin beharreko zeregin guztien zati txiki-txikia osatzen dute, % 5 baino ez”. Eta guk diogu: beraz, hizkuntz funtzioetan trebatzea ere maila bertsuan egingo da.”

**Vera Vila, J (1995):** “El profesor ante los modelos culturales de la sociedad contemporanea” in *Teoría de la educación*, 1995, 7. alea (84. or.): “Un niño de EGB al cabo del año ha estado más horas ante el televisor que en clase”. Alegia, zein izan da irakaslerik saiatuena? Zein hizkuntza eta zein eredutan transmititu dio “irakasle” honek? Erantzuna gure arduioen ildoan dago.

*Euskera*. pp. 139, 205, 206, eta 216. 1969.). Gauzak horrela, diglosia gainditzearen, euskara “noranahi” eraman behar horretan, burubelarri jardun gara euskaldunok. Batasun prozesuan gauzatzen joan den euskara estandarra, hamaika kritika jaso arren, euskaldunon artean hedatu da, eta euskararekin nola-halako loturaren bat izan duen orok lan tresnatzat hartu izan du. Euskararen eredu batua prestigiodun funtzioetarako erabiltzeak izen ona eman dio, askok hizkuntz eredu idealtzat jo dutelarik. Zenbat ote dira, uste okerrean, lagun arteko euskara baztertuz estandarra “noranahi” eraman dutenak? Zenbati entzun ote dizkiogu inolako graziarik gabeko txisteak kontatzen telebistako albistarien moldean?

Alegia, batasun prozesu horretan hizkera edo hizkuntz eredu bakoitzaren erabilpen eremua ez zehazteak nahasmena ekarri du eta horrekin batera lagun arteko eta familiako hizkuntz ereduaren balio gutxitzea.

Besteak beste, eta arestian esan dugunari lotuz, euskarazko hezkuntza izan da euska-ra iturri bakarra edo ia bakarra, edo nagusia, edo... gaur egungo gazteentzat. Eta hezkuntzan euskara estandarra eta estandarra bakarrik landu denez... eredu honen gabeziak ager-tzen hasiak dira aspaldian.

Bestela esanda, euskara hizkuntza gutxiagotua izanik, berezko erabilpen eremu finkorik gabekoa eta eskola bidezkoa delarik kultur ekarpen nagusia, bi aukera daude: eskolari ohikoa dena baino betebeharrak gehiago ematea, edo, eskolaz gain bestelako erabilpen eredu eta kultur ekarpenak lantzea hizkuntzaren biziberritzea ziurtatzeko. Bistan da, orain arteko aukera ez dela ez bat eta ez bestea izan, hau da, eskolak orain arte bete izan duen funtzioa, funtzio klasikoa izan dela: euskarazko heziketa formala. Eta bertan ikasitakoak, behin eta berriro aipatzen ari garen gabeziak direla eta, herren. Eta herren diogu, izan ere, hizkuntz eredu formala soilik landu duenez eta hau izan baita lehentasunez bultzatu dena kultur hedabideetatik, funtzio informala falta zitzaion. Eremurik euskaldunenetan bazen hizkera anormatiborik, eta funtzio informalak betetzeko eredurik ere bai. Hau guztia, ordea, eredu batuaren sorrerak itzalpean jarri zuen.

Eredu hau herri txiki eta baserri girokoekin loturik zegoen eta azken 25-30 urte hauetan Euskal Herriak bizi izan duen hiritartze prozesu bortitzak kultur eredu hori -herri txikietakoa, baserri girokoa- gazte euskaldun urbanitentzat are zaharkituagoa egiten lagun-du du. Beraz, aldaketa prozesu honetan kultur eta hizkuntz etena batera gertatu dira.

Euskarazko funtzio informala prestigiorik gabekoa, zaharkitua... zenez eta prestigioduna berriz eredu formala, hirugarren ereduaren beharra zegoen eta eredu hori, inon baino biziago, inon baino jantziago zegoen erdararen. Beraz, gazte euskaldunek lagunarteko diskurtsoan erdarazko ereduari heldu beharra izan dute.

Euskaldunok, arazoak jabetzeak hasiak garela dirudien arren, gaur egun oraindik prozesu horretan murgildurik gabiltza, eta zer esanik ez gazteak. Izan ere, eskola bidez hedatu den eredu bakarrak, formalak, aukera guztiak zituen eta ditu, bakarra eta formala den heinean lagun arteko diskurtsoak baztertuta izateko eta horren ordez, beste zerbaitek -kultur eredu erdaldunen, indartsuenen, diskurtsoa- nagusitzeko. Izan ere, lagunarteko diskurtsoaren ezaugarria da, eta batez ere gazteen diskurtsoarena eredu formaletik bereiztea, helduen mundua, formaltasunaren mundutik aldentzeko joera izatea eta bestalde, talde nortasuna,

bereizketa nabarmenduko duten elementuen hanpatzea<sup>9</sup>. Beraz, testuinguru horretan ulertu behar da ikerketa hau egiteko interesa eta bertan lorturiko emaitzen funtsezko eragilea.

### ***1.6. Kontzeptuen azalpena:***

Ondoren ikerketa honetan barrena irakurleak topatuko dituen kontzeptu nagusien azalpena dator.

**Hizkera: (edo Estiloa, Diatipoa):** Labovek estiloa hizkera, adierazteko modua, dela dio. Adierazteko modu hau beste adierazteko moduen aldean desberdina da, “azpikode desberdindua” Halliday jarraituz, estiloa *diatipoa* dela esango dugu<sup>10</sup>. Alegia, egoera eta testuinguruaren arabera erabiltzen dugun hizkera (hizkera teknikoa, eremu sozial jakin betekoa, idatzizkoa, ahozkoa...). *The Encyclopediak*<sup>11</sup> Hallidayren ildo jarraitzen du. Bi definizio ematen ditu, bata diatipoari espreski dagokiona, eta bigarrena, erregistroaren 2. adieratzat jotzen duena (biak gauza bera direla esanez). Honen arabera diatipoa helburuaren arabera bereizketa duen aldaera da. Bigarren adieran zehazten duenez, hizkuntz aldaera da, eta hiztunari loturik egon beharrean erabilerari loturik dago. Hau da, legezko, kazetaritazko, formal, zehatza... izan daiteke. Hau honela, hiru termino hauetakoren bat erabiltzean. Hiruetatik bat hobetsi beharko genuke, hiztun batek erregistroa eta dialektoaz gain egoera eta testuinguruaren arabera ezartzen dizkion “ezaugarriak” izango ditugu buruan. Adibidez, baserritarra baldin bada mundu honekin loturiko lexiko eta gainerakoa, eta irakaslea edo lapurra edo gaztetxea baldin bada beste hainbeste. Ezin dugu ahaztu honen atzean hiztunak jarritako helburua dagoela. Baina ez dugu ahaztu behar, halaber, helburuaren arabera bereizketa (*The Encyclopediak* egiten duena) hankamotz dagoela ez baita aski helburua izatea, hitz egiteko modu horren berri ere izan behar da.

**Hizkera Formal / Informala / Hizkera normatibo eta anormatiboa:** Stubbsen<sup>12</sup> esana jarraituz hizkera normatiboa argitalpen, komunikabide publikoak eta “ikasitako” hiztunek erabiltzen dutena da. Heziketa munduaren bitartez irakasten den hizkera da eta ondorioz, ez dago geografikoki mugaturik. Hizkera normatiboan aldakortasunerako aukera desberdinak daude. Izan ere, idatzizko hizkuntzan arauak zorrotzagoak diren heinean estilo formaletik urruntzeko aukerak txikiagoak dira, aldiz, mintzatuan aukera handiagoa da. Hizkera anormatiboa normatiboa ez den beste guztia da. Dialektoak zein soziolektoak anormatiboak dira. Hizkera normatiboa, mintzatua batipat, zenbat eta informalagoa orduan eta dialekto anormati-boetik gertuago.

**Heziketa formala / informala / formarik gabekoa:** Coombs eta Ahmeden 1974ko lan batean ageri denez<sup>13</sup> heziketa formala “instituzionaltze” maila handiko heziketa

<sup>9</sup> Chambersen arabera (**Chambers, J.K. (1995)** *Sociolinguistic Theory*, Oxford, Blackwell. 168-9 or.) Hauren hizkuntz ereduaz ari delarik honela dio: “ In any case, at this formative period of language development the important influences are families and friends. Where those two influences are at odds with another, as is obvious in extreme cases and presumably present, though very subtle, in ordinary cases, then there is inevitably tension. The learners normally resolve the tension in favour of their peers.”

<sup>10</sup> Ikus: Halliday egiten duen sailkapena (**Halliday, M. (1977):** *Explorations in the functions of language*. London, Arnold, 1977).

<sup>11</sup> **Asher R.E. (1994):** *The Encyclopedia of Language and Linguistics*. London, Pergamon Press

<sup>12</sup> **Stubbs, M (1984):** *Lenguaje y escuela*. Madrid, Ed. Cincel.

<sup>13</sup> **P.H. Coombs eta M. Ahmed (1974):** *Attacking Rural Poverty: How Non-Formal Education can Help*,

sistema da. Heziketa ez formala, berriz, heziketa sistema ofizialetik sistematikoki antolaturiko heziketa ekintza oro da, giza talde berezien heziketa errazteko egina, haur eta helduena, esaterako. Heziketa informala, berriz, bizitza osoa irauten duen prozesu bat zeinetan pertsonak ezagutza, trebetasuna, jarrera eta ulertze moduak jasotzen dituzten eguneroko esperientziak eta inguruarekiko harremanaren bitartez.

**Diskurtsoa:** Termino hau itxuraz dirudiena baino korapilotsuagoa da. Erraz esanda, diskurtsoa solaskide bakoitzaren jarioa, ekoizpen gordina dela esango genuke. Ekoizpen horrek, ordea, katramila ugari du bere baitan eta neurri horretan ulertu behar dugu. Schiffriren<sup>14</sup> azalpenak jarraituz, operatzaile pragmatikoez ari delarik, diskurtsoak sistema izaera duela dio eta bertan **aldaketa, ekintza, idea mailako egiturak, informazio ingurua** eta **parte hartzeko markoa** daudela. Operatzaileek osagai horien barruan funtzio bereziak dituzte, baita diskurtso osoaren baitan ere, diskurtsoa sistema den neurrian.

**Lematizatu:** Lematizatzea aztergai dugun lexikoa lemetara ekartzea da, alegia, marka morfologikoak kendu (deklinabide markak edo aditz desinentziak, esaterako) eta erro hutsean ematea. Honela, funtsean berdinak izan arren azaleko diferentziek desberdin egiten dituzten hitzak identifikatu eta multzo handitan sailkatzeko mo-duan gaude.

**Prestasun hiztegia:** Dokumentazioa lematizatu ondoren, aztergai ez diren elementu guztiak ezabatu ondoren geldintzen den hiztegia, aztertu beharreko materialea. Gure kasuan izen edo aditz erro ez zen beste guztia ezabatu ondoren gelditu zena.

**Formulak<sup>15</sup>:** Aldez aurretik eginda daudelako hutsetik hasita eraiki beharrik ez duten egiturak izendatzeko erabiltzen da. Formula fenomeno unibertsala da, hiztun talde orotan agertzen da.

- Motak: 1) egunero erabiltzen diren esaldi finkoak, 2) erritoetako formulak, 3) errutinazko formulak 4) formula poetikoak. Hauetako bakoitzaren barruan azpi talde ugari dago.
- Esaldi finkoak: idiomatismoak, metafora estandarrek, binomialak (bikoiztasunak), simul konbentzionalak, klitxeak, leloak, madarikazioak, ohiko aipuak.
- Erritoetako formulak: erabilpen zehatzeko formulak dira, otoitzak, errekuak, gonbite diplomatikoak,...
- Errutinazko formulak (edo, pragmatic idioms): maiz agertzen diren betebeharrak komunikatiboetarako finkaturik dauden esaldiak: aurkezpenak, agurrak, eskerrak, barkamen eskeak, losintxak, gai aldaketak, errepikatze eskaerak...
- Formula poetikoak: ideia edo pertsona bat aipatzean beti era berean errepikatzen diren esaldiak.

Formulazko diskurtsoaren ezaugarriak: hiztun taldeak formulak ezagutu eta ulertzen ditu, konbentzionalak eta popularrak direlako. Ez dute izaera sortzailea ez baitira esanahi horrekin sortuak, beraz sarritan sintaxi arauak apurtu edo sintaxi arau zaharrak ageri dituzte. Formula hauek garapen eta distribuzio aldetik mugaturik

---

Baltimore, J. Hopkins University Press.

<sup>14</sup> Schiffrin (1988): *Discourse Markers*. Cambridge, Cambridge University Press.

<sup>15</sup> The Encyclopediaren "formal language" sarreran oinarriturik (Asher R.E. (1994): *The Encyclopedia of Language and Linguistics*. London, Pergamon Press.)

daude. Adierazle eta adieraziaren artean ez dagoenez loturarik gehienetan semantikoki opakoak dira. Ezaugarri hauek (egitura ihartuak, opakotasuna eta desbiazio sintaktikoa) ez dira kategorikoak, gradaziorik antolatutakoak daude, eta formulatasuna bera ere graduatutako nozioa da.

Formulazko diskurtsoaren betebeharrak: formulen esanahi sikolinguistikoa da osorik gorderik egotea, horrek diskurtsoa hutsetik eraiki beharra eragozten digu eta gai egiten diskurtso zati handiak bapatean esateko. Dena den formula ezauga-riak izateak ez du esan nahi gizarteak horrela jasoko duenik, norbanakoaren maila-ko kontua izan daiteke. Soziolinguistikatik begiraturik formulazko diskurtsoak ezagu-tza soziolinguistikoa eskaintzen du, formulak sozialki ezagunak bihurtzen dira eta ohiko egoerei azkar eta era konbentzionalen erantzuteko aukera ematen digute eta gizarte harremana errazten dute. Sarritan hitz egokirik ezean formulak erabiltzen dira.

Formulak erabiltzea talde nortasun eta akulturatzearen adierazgarri indar-tsuak dira. Ezagutzeak gizarte kohesioa sortu eta handitzen dute. Formulek interakzio mailako funtzioak ere betetzen dituzte, diskurtsoaren kontrolean batez ere. Zeinu meta-komunikatiboak direnez elkarriketa baten izaera zehazteko erabiltzen dituzte, gaien agenda osatzeko, diskurtsoa maila batetik bestera eramateko, hitz egiteko aukera banatzeko, jarrera kognitiboak adierazteko (sinestea, ustegabea, desadostasuna).

Belaunaldi batetik bestera talde mailako esperientzia transmititzeko erabiltzen den baliabide memoteknikoa ere bada.

Guk gure lana egiteko definizio hau modu zabalean hartu dugu. Oinarrizko ezaugarriak aintzat harturik, besteak beste, kategorikoak ez izatearena eta gradaziorik antolatutako egotearena. Beraz, formularen kontzeptupean, bestelako bereizketarik egin gabe, konbentzionaltasunez iharturik ageri diren egiturak sartu ditugu, adiera edozein dela ere.

**Hibridoak:** Izen honekin gure dokumentazioan sarri agertzen zitzaigun egitura mota bat izendatu nahi izan dugu. Egitura hauek, gehienetan perpaus bakarrek, morfosintaktikoki euskara eta erdarazko elementuekin osaturik daude. Honek ez du esan nahi elementu lexikoak bakarrik nahasten dituenik, baizik eta sintaxi mailan ere bi hizkuntzetako egiturak nahasirik ageri direla sarritan. Horrekin batera, hauetariko askok formula izaera dute (ikus formulez esandakoa). Bietariko ezaugarriak zituz-tela ikusirik eta lexiko mailakoak ez izan arren adierazpen eta konbentzionaltasun indar handia zuten izen hori jarri genien. Sailkapena egitean ohartuko gara zen-bait erdara hutsean daudela edo beste zenbaitek erdal formula bat dutela gehiturik. Guk guztiak jaso nahi izan ditugu, formula izan gabe erdaraz emandako perpausak, edo euskarazko perpausaren txertaturiko formulak... halako nahaste ageri zuen oro, lexiko maileguak alde batera utzita.

Hibridoetan gertatzen den fenomeno linguistikak ezaguna du aspaldidanik, kode alternantzia eta kode nahasketa, Code switching eta Code Mixing izenez ezagun direnak (ikus honi buruzko eranskina). Ezaugarri sintaktiko eta morfologikoen nahasketa, formula izaerak... termino berri hau asmatzera eramán gintuzten. Izan ere korapilotsuegia zen esatea “Kode nahasketa duten perpausak”. Ez dago batere argi, oraindik orain, non dagoen alternantzia eta nahasketaren muga hizkuntzalari ospe-

tsuen artean, eta guk gure lanerako hori argitu beharrik ez genuenez biak bilduko zituen termino baten alde egin genuen.

**Funtzio metalinguistikoa**<sup>16</sup>: Funtzio hau hiztunak hizkuntza hizkuntzaz aritzeko erabiltzen duenean edo hizkuntzaren anbiguitateak, ezaugarri ez-testualak, litera-rioak eta kolokialak ulertu eta berriak sortzeko gaitasuna indarrean jartzean agertzen da. Funtzio honek estilo mailako errekurtsoak garatu eta lantzea eskatzen du Gazteen hizkeraren ezaugarrietako bat funtzio hau da hain zuzen, beronek ematen baitio aberastasuna euren gaitasun komunikatiboari. Horregatik diogu erdararen ekarpenak direla gazte euskaldunen diskurtsoari “gazte” izaera ematen diotenak, ekarpen hauek erdal gazteek funtzio metalinguistikoa erabiliz egindakoak direlako.

**Maiztasuna**: Maiztasuna hitz bat edo elementu mota bat (gure kasuan formulak, operatzaile pragmatikoak, izenak, aditzak) orotara zenbat aldiz erabiltzen diren adierazteko erabiltzen da. Maiztasuna subjektu, azpimultzo edo multzo osoaren mailan neurtu dugu.

**Corpusa**: aztergune bakoitzean (lexikoa, formulak, operatzaile pragmatikoak) osatzen duten elementuen multzoa. Multzo honetan elementu bakoitzaren maiztasunak ez du zerikusirik.

**Operatzaile Pragmatikoak**: *The Encyclopediaren* arabera Operatzaile esatean, bere eragin eremuan dauden beste egitura linguistikoak modifikatzen dituzten espresio linguistikoez ari gara.

Operatzaile Pragmatikoek (OP) ekarpen pragmatikoa egiten dute semantikoa baino, diskurtsoa ulertzeko testuinguru mailako argibideak ematen dizkigute.

Gordinki begiraturaz diskurtsoaren baitan gertatu diren interakzio guztien harian ulertu beharreko mezu metalinguistikoak dira eta solaskideen arteko komunikazioa osatzen dute.

OP-ek aldi berean funtzio bat baino gehiago bete dezakete arestian aipatutako diskurtso maila ezberdinetan (“Beraz”: perpaus amaieran dagoenean, pausaldi baten ondoren, aurretik esandakoak ondorioak direla adierazteko edo solaskideari hitz egiten hasteko bere txanda dela adierazteko balio du).

Beraz, diskurtso operatzaileek diskurtsoaren maila ezberdinak egitura bakar batean biltzen laguntzen dute aniztasunaren erdian eraikuntza koherente bat eginez.

Hemen aipaturiko kontzeptu zenbaiten inguruko informazio zehatzagoa eranski-nean bildu dugu. Bertan kode alternantzia, operatzaile pragmatikoak eta gazte hizkeraren inguruko kontuak zabalago azaltzen dira.

<sup>16</sup> Del Río, M.J. (1993): *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo. Cuadernos de Educacion 12*, Barcelona, ICE-Horsori. 57. or.)



## 2. PROZEDURA ETA METODOLOGIA

### 2.1. Laginketa eta lagina

#### 2.1.1. Laginketa

Gazte euskaldunen lagunarteko diskurtsoa aztertzea dugu helburu. Honetan oinarrituz honako irizpide hauek erabili ditugu laginketa egiterakoan:

Aztergunea lagunartea da, beraz, elkar ezagutu eta elkarrekin hizketan konfidantza osoan ibili ohi diren taldeak hautatuko ditugu.

Geografikoki Hego Euskal Herrikoak izango dira. Izan ere, Ipar Euskal Herrikoak sartzeak, besteak beste, bestelako hizkuntz tradizio bat aztertzea dakar eta homogoneotasunaren kaltetan izan daitekeelakoan Hego Euskal Herrira mugatzea hobetsi dugu.

Soziolinguistikoki gune desberdinak bereiziko ditugu: Batetik industri giroko ala nekazal giroko herriak (gune bakoitzean herri euskaldun eta erdaldunduetako frogak bilduaz) Eta bestetik, euskaldunak isolaturik bizi diren eremuak izango ditugu aztergai.

Beraz, bost gune zedarritu ditugu<sup>1</sup>: 1) Euskarak presentzia sozial handia duen eremu industrialak: Arrasate (% 65,38). Bertan bi grabaketa aztertuko ditugu ikasketa mailaren araberako lagunarteko diskurtsoa desberdina den ikusteko. Honela oinarritzko heziketa euskaraz jaso eta lan munduan edo lan mundurako prestaketa jasotzen ari direnak eta unibertsitatera begira daudenak alderatuko ditugu. 2) Euskarak presentzia eskasa duen eremu industrialak: Galdakao (% 51,14). 3) Euskarak presentzai sozial handia duen nekazal giroko eremua. Aldagai soziolinguistikoki desberdinak alderatu ahal izateko nekazal giroko herri "euskaldunen" artean herrialde desberdinetako bi herri alderatuko ditugu (Segura (% 94,65) eta Dima (94,74)). 4) Euskarak presentzia sozial eskasa duen nekazal giroko eremua: Altsasu (% 30,5). 5) Euskaldunak isolaturik bizi diren eremua: Portugalete (% 27,07) eta Lizarra (% 15,46).

Adinari dagokionez 16 eta 24 urte bitartekoak hautatu ditugu Soziolinguistikazko ikerketan adin multzo hori zehazten baita. Dena den, guk nahiago izan dugu ahalik eta gazteenak hautatzea, gutxieneko adin muga horretatik pasa gabe. Izan ere, eta Chambersen esanak<sup>2</sup> kontuan hartuz, gaur egungo gaztaroa historian izan den gazterorik luzeena da. Lan merkatuan sartu edo helduen ardurak hartu beharra inoiz baino gehiago ari da atzeratzen, formazio aroa, beraz, izan den luzeena da. Honen ondorioz, bada hor adin multzo oso zaba-lakoa edo nerabe ez dena eta heldu izatera heltzen ez dena ezaugarri fisiko eta soziolo-gikoak aintzat hartzen baditugu. Multzo honek, bada, bere identitate propioa eraiki eta na-

<sup>1</sup> Kopuru hauek 1991ko erroldako erdaldun elebakarrak ez diren beste guztiak batuz atera ditugu. iturriak hauek izan dira: *Euskara Nafarroan. 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolinguistikokiak*. Nafarroako Gobernua (1995) eta *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak 1991. Hezkuntza eta Euskara*. Eusko Jaurlaritza (1993) Iharduera ekonomikoari buruzko datuak EUSTAT-ek argitaraturiko 1994ko udal adierazleetan aurkitu ditugu: Populazio aktiboaren banaketa kontuan hartu eta nekazaritzan ari direnen ehunekoa emanez honelakoak dira gure herri hauek: Galdakao: % 0,3, Portugalete % 0,1, Segura % 2,7, Dima % 3,9, Arrasate % 0,2. Nafarroako datuak (*Euskara Nafarroan. 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolinguistikokiak*. Nafarroako Gobernua (1995)) ez dira herri bakoitzari dagozkionak hizkuntz zonaldeari dagozkionak baizik. Altsasu zonalde euskaldunean dago. Bertan nekazaritzan biztanleria aktiboaren % 7,5a aritzen da, Lizarra, berriaz, zonalde mistoan dago eta hor nekazaritzan aritzen direnak batuz beste % 0,3a baino ez dira. Altsasuko datua oso erlatibo den arren, gainerako herrietako errealitatearekin alderatuz nekazal herria delakoan hautatu dugu.

<sup>2</sup> Chambers, J.K. (1995) *Sociolinguistic Theory*, Oxford, Blackwell. Ikus "Declarations of Adolescence" atala (169-72 or.)

barmentzeko premia gorria du (ikus 2. eranskina). Hizkuntza da, besteak beste, diferentzia markatzeko tresnetariko bat, haurren mundutik edo helduenetik bereizten lagungarri izango dena. Horregatik 16 eta 24 urte bitarteko multzo horren erdialdean dauden lekukoak hautatzen saiatu gara, ahalik eta tipologiarik garbiena lortzearren.

Solaskide kopuruari dagokionez ere muga jarri dugu eta talde guztietan gutxienez lau eta gehienez sei hiztun jartzeko ahalegindu gara. Honen helburua hitz egiteko arrazoizko espazioa ematea zen. Izan ere, talde handiegi batek nekez emango luke aukerarik hiztun bakoitzak nahi duen orotan hitza hartzeko.

Horiek izan dira laginketarako ezarritako gutxieneko irizpideak. Hortik aurrera ez dugu taldearen izaera baldintzatu nahi izan sexua, ikasketak edo beste edozein mugatzai-leren bidez.

### 2.1.2. Laginaren deskripzio estatistikoa

Subjektu kopurua: 43

Sexua:

22 gizonezko

21 emakumezko

Adina:

Bataz besteko adina: 19 urte

16 urtekoak: 4 (% 9,3)

18 urtekoak: 9 (% 20,93)

19 urtekoak: 11 (% 25,58)

20 urtekoak: 3 (% 6,98)

21 urtekoak 11 (% 25,58)

22 urtekoak: 4 (% 9,3)

24 urtekoa: 1 (% 2,32)

Ikasketak:

Oinarrizko ikasketak soilik euskaraz: 9 (% 20,93)

Oinarrizkoak eta ertainak euskaraz: 21 (% 48,84)

Oinarrizkoak, ertainak eta unibertsitatekoa euskaraz: 13 (%30,23)

Etxean euskaraz egiteko ohitura:

Ez: 16 (% 37,21)

Bai: 25 (% 58,14)

Bietan 2 (% 4,65)

Kalean euskaraz egiteko ohitura (Lagunekin, lantokian, dendetan... ohiko harremanetan)

Ez 19 (% 44,19)

Bai 23 (% 53,49)

Bietan 1 (% 2,32)

Euskarazko kultur produkzioarekin harremana:

Hutsa: 1 (% 2,32)

Kaskarra: 4 (% 9,3)

Handia/ ertaina: 38 (% 88,37)

Eremu soziolinguistikoen arabera:

Nekazal giroa, euskalduna: 10 (% 23,25) -Dima eta Segura-

Nekazal giroa, erdaldundua: 4 (% 9,3) -Altsasu-

Industrialala, euskalduna: 11 (% 25,58) -Arrasate-

Industrialala, erdaldundua: 6 (% 13,95) -Galdakao-

Euskaldunak isolaturik bizi direnekoa: 12 (% 27,9) -Lizarra eta Portugalete-

Operatzaile pragmatikoen azterketa egiteko interesgarria iruditu zitzaigun euskaldunen datuak erdarazko gazteek lagunartean darabiltzatenekin alderatzea. Izan ere, eta Maschlerren hipotesia<sup>3</sup> kontuan hartuz, parekotasun nabarmenak aurkitzeko aukerak baitzeuden. Gazte erdaldunen taldeak hautatzeko ez genuenez helburuen aldetik baldintza oso zorrotzik, Koldo Mitxelena Institutura jo eta bertako euskara mintegiko buruaren bitartez bi talderekin harremanetan jarri ginen. 3 BBBko ikasleak guztiak. Honako ezaugarriak zituzte:

Oretertan bizi dira denak eta euskara eta euskaldunekin ohiko harremana zutela adierazi zuten

C taldea: bi mutil eta hiru neska

D taldea: hiru mutil eta bi mutil

Beraz, orotara bost mutil eta bost neska.

### *2.1.3. Laginaren adierazgarritasuna populazioarekiko batetik eta ikergaiarekiko bestetik.*

Lagin txikia da gurea, 43 hiztun. Lagina hautatzeko orduan jarritako baldintzak, ordea, era bat betetzen dira, bai eta froga burutzeko baldintza metodologikoak ere. Jasotako materialea, halaber, oso egokia izan da eta guk lortu nahi genuen naturaltasuna lortu dugulakoan gaude. Alta, aztergai dugun laginaren adierazgarritasuna handia da.

Laginaren esaguratsutasunari begira, berriz, nekez esan dezakegu ezer aztergai dugun gizarte segmentu horretaz, gaur egun, oraindik orain ez baitago informazio estatistikorik.

## **2.2. Lan hipotesiak eta azalpenak**

Lanerako hipotesiak eraikitzeke orduan maila desberdinak egingo ditugu: Maila orokorrekoak, eremu soziolinguistikoaren araberrakoak eta subjektuaren ezaugarri soziolinguistikoen araberrakoak. Hipotesi horiek eremu bakoitzean aztergai ditugun elementuak behatuz egingo dugu.

**a) Orokorrean:** Gazte hauen diskurtsoak, diferentzia batzuk gora-behera, ezaugarri amankomunak izango ditu. Izan ere, arestian esan dugun bezala, azken urteotan erdarazko lagunarteko diskurtsoa bihurtu zaigu edonongo gazte euskaldunen erreferentzia nagusia (ikus sarrera). Hori dela eta, eremu soziolinguistiko edo hiztunen arteko diferentziak gora-behera, baserri giroko euskararen adierazgarritasun eza eta hizkuntz eredu formaletik ihesi, hizkera horretan topatzen dute euren diskurtsoa egituratzeko behar duten harrobia.

<sup>3</sup> **Maschler, Y n.d.** "Metalanguaging and discourse markers in bilingual conversations" (Unpublished m.s.) R.E. Asher-en *The Encyclopedia of Language and Linguistics*-eko Pragmatic Operators sarreraren pean (3250. or.) egiten zaion aipamena da ezagutzen dugun bakarra eta horretan oinarritu gara. Honi buruz jakin beharrekoak jakiteko ikus sarrera 1.5 puntua eta Operatzaile Pragmatikoez mintzo den eranskina.

*Formulak:* Besteak beste, erdaraz eman edo erdaratik itzultako formulak izango dira nagusi. Diskurtsoa “gazte” kutsuz jazteko balio duen elementu nagusietakoa da for-mula eta erakargarrtasun handikoa bere trinkotasunak eskaintzen duen sintesi eta esklusi-bitate ezaugarriengatik.

*Hibridazioa:* Orokorrean hiztun gehienek honelako esaldi nahasiren bat erabiltzen dutela ikusiko dugu. Honelako esaldi nahasiak formula kutsua hartzen dute eta formulek dten erakarpen bertsua izatera hel daitezke. Hibridazioa, ordea, ez da hiztun guztien ezaugarri nabarmena, horregatik diogu gehienek egingo dutela honelako esaldiren bat, ez guztiek.

*Lexikoan:* Kontaketan formula eta hibridoetan egon daitekeen erdal korpusa kenduta, erdararen presentzia ez da hain nabarmena izango hori ere hor egongo den arren. Izan ere, oinarritzko lexikoan, euskaraz eskolatuak diren heinean, badute behar den harrobia, non eta hitz hori ez dagoen “gazte” kutsuko diskurtsoarekin lotua, orduan, formuletan bezala, erdal korpusetik hartua izango da nagusiki.

*Operatzaile Pragmatikoak:* Bi talde soilik aztertuko ditugun arren, Maschlerren hipotesian oinarrituz<sup>4</sup>, formulen inguruan esandakoa errepikatu beharko dugu, kasu hone-tan, beharbada areagoturik. Izan ere, lexikoan ez bezala badirudi hiztunek hemen ez dutela elementu hauen jatorriaren kontzientziarik eta erabiltzekotan, maiztasun handiz erabiltzen direnez, oso erraza dela behin erabiltzen hasita erabilpena areagotzea. Bestalde, erdarazko diskurtsoaren indarra dela eta operatzaileok euskarazkoen lekua hartzen ez dute oso zaila, presentziagatik besterik ez bada ere.

**b) Eremu soziolinguistikoen arabera:** esku artean darabilgun lagina oso murrizta denez ez da erraza esatea hemen agertuko diren emaitzak eremu soziolinguistiko horretan espero direnak izango diren ala ez. Dena den, pentsatzekoa da euskararekiko loturarik handiena dagoen eremuetan topatzea emaitzarik onenak, eta hauen artean batez ere nekazal giroko herrietan erdaraz bizi den hiztun multzoarengandik urrunago daudelakoan. Nahiz eta gaur egungo bizimoduaren mugikortasun geografikoa, hedabideen zabalkundea eta abarren ondorioz geroz eta diferentzia gutxiago egon. Eremu honetan erdarazko formulak eta hibridoak ez dira orokorrean bezain garrantzitsuak izango, izan ere, komunitate euskaldun batean errazagoa baita berezko formulak oraindik bizirik eta indarrean egotea.

Erdaldundutako eremuetan, berriz, berdin da nekazal giroko zein industrial, erdararen ekarpena berdintsua izango da, horko hiztunek erdararekin zuzeneko harremana baitute egunero eta lagunarteko diskurtsoan.

Dena den, interesgarria izango da alderatzea erdaldundutako eremu hauetako emaitzak euskaldunak isolaturik bizi direnekoekin. Gure ustez, litekeena da arras emaitza desberdinak topatzea, besteak beste eremu horietako hiztunak hiztun berriak direnez, eta euskara etxetik baino eskolatik jaso dutenez, hitz egiteko aukera murriztek bere horretan kontserbatzera eramango baitituzte eta ondorioz diskurtsoa, ez hain erdaldundua izatea.

**c) Subjektuen arabera:** Hemen jasotako eragile soziolinguistikoen araberako neurketak arrisku ugari du beste eragile multzo zabal bat kanpo gelditzen baita, eta bestalde,

<sup>4</sup> Maschler, Y n.d. “Metalanguaging and discourse markers in bilingual conversations” (Unpublished m.s.) R.E. Asher-en *The Encyclopedia of Language and Linguistics*-eko Pragmatic Operators sarreraren pean (3250. or.) egiten zaion aipamena da ezagutzen dugun bakarra eta horretan oinarritu gara. Honi buruz jakin beharrekoak jakiteko ikus sarrera 1.5 puntua eta Operatzaile Pragmatikoez mintzo den eranskina.

jasotako erantzunak hiztunak berak emana direnez, ez baitute zertan benetakoak izan beharrik. Dena den, pentsatzekoa da eremu soziolinguistikoaren eragina amankomuna izango dela. Horrekin batera, euskarazko eskolatzeari zenbat eta sakonagoa izan, edo euskara zenbat eta gehiago erabili lagunartean, etxean, edo euskarazko kultur produkzioari zenbat eta jarraipen estuagoa egin emaitzak orduan eta hobekiago izango dira. Besteak beste, pentsatzekoa da etxean euskara gehien erabiltzen dutenek ez dutela gainerakoek adina erdarazko formularik erabiliko. Diferentzia, dena den, txikia izango delakoan gaude, azken batean, erdal iturria nagusi baita hiztun guztientzat.

Hipotesi hauek guztiak laginaren adierazgarritasun murriztarekin batera hartu behar ditugu. Alegia, hipotesi hauek irizpide orokorretan oinarriturik daudela eta laginak ez digula maila berean frogatzeko aukerarik ematen, balio izan, beza, bada, hurbilpen lan moduan.

### ***2.3. Materialea lortzeko erabilitako metodologia:***

Materialea lortzeko elkarrizketa askeak egin ditugu. Izan ere, lagunarteko diskurtsoa jasotzeko moduko metodologia behar genuen eta hitz-zerrenda eta galdetegiak ez dira oso egokiak espontaneitatea jasotzeko.

Herriak hautatu eta herri bakoitzean konfidantzazko herritarren bat topatu ondoren lekuko honi gure ikerketaren helburuak azaldu genizkion eta taldea hautatzeko eta berarekin kontaktua egiteko argibideak ematen.

Taldea hautatzeko: euskaraz funtzionatu edo euskaldunez osatutako lagunartea izan behar zuen, lagunarte arrunta. Bistan da zergatik izan behar duen lagunartea, talde finkoa ez izan arren elkarren arteko harremanean ohituta egon behar dute horrek espontaneitatea, jartortasuna, kidetasuna... bermatzen baititu, guk testuinguru horretan sortutako hizkera dugu aztergai.

Taldearekin kontaktua egiteko: kontaktua egiteko orduan herritarrak ez zien benetako arrazoia aipatu behar. Benetako arrazoia ezagutzeak, ezinbestean lekukoaren ekoizpena baldintzatuko bailuke. Beraz, ahalik eta itxurarik normalena izateko aitzakia jakin bat erabili behar zuen. Gure aitzakia honako hau da: ikerketa soziologiko bat egiten ari den talde bat hego eta iparraldeko euskaldunen iritzia jasotzen ari dela zenbait arazo sozialei buruz, eta horren barruan, besteak beste, eztabaida taldeak antolatu dituela. Eztabaida talde horietan eztabaidatu besterik ez dela egin behar azaltzen diegu. Konfidentzialitatea ziurtatzen diegu eta, halaber, gaiak ez direla konprometigarriak izango.

Taldeak baietza emanez gero, hitzordua jartzen da, taldea eta gure artean adostua. Hitzordua hori batzutan kontaktuak berak, bestetan zuzeneko harremanean zehazten dugu bi aldeetan artean. Eztabaidarako leku egokia bilatzea ere eskatzen diogu kontaktuari, alegia, taldetik kanpoko inor eztabaidan sartu-atera ez ibiltzeko, grabaketan esandakoa argi eta garbi jasotzeko, lekukoaren elkarrekiko arreta sendotzeko... leku lasaia.

Eztabaida bideratzeko: Talde guztien artean lexiko aldetik ahalik eta lexiko batasunik handiena egon dadin eta eztabaida bera laguntzeko eta zirikatzeko guk geuk prestatu eta benetako prentsa artikulua gisa aurkeztutako hiru testu ematen dizkiegu.

Testu hauetan agertzen diren gaiak, horretarako propio hautatuak izan dira. Gazteen arteko maitasun eta sexu harremanetan oinarrituz, ezkontzak, nahigabeko haurdunaldiak eta

homofobia zein fidelitate kontuak aipatzen dira. Gai hauek hautatzearen arrazoia bistakoa da: gazteek zuzenean bizi dituzten arazoak dira, denek dute zer esana horietako baten baten inguruan. Bestalde, eztabaida piztearren eta talde mailako adostasunak debatea eragoztearren arriskuaz jabeturik, artikulua bakoitza propio korapilatu dugu adostasuna ia ezinezkoa izan dadin, kasu batean ez bada bestean.

Hiru artikulua jartzearen arrazoia ildo berean doa. Sentsibiltate bereko bi talde topatzea zaila izango delakoan, jarrera desberdinak pizteko asmoz jarri ditugu. Honela, gai batek eztabaida eragiten ez badu beste batek eragingo duelakoan.

Eztabaida bera: Taldearearekin esandako ordu eta lekuan elkartu ondoren, hitz gutxitan kontaktuak jarritako aitzakia bera errepikatu eta eztabaidaren inguruko xehetasunak zehazten dizkiegu. Besteak beste, eta gure parte hartzea ahalik eta gehien mugatzearen, eztabaida euren artekoa dela eta guk ez dugula parte hartuko argi eta garbi azaltzen diegu.

Eztabaida laguntzeko eta formaltasuna apurtzeko litxarkeriak jartzen ditugu mahai gainean, jana eta edana.

Transkribatzeko orduan ahotsen identifikazioan laguntzeko eztabaida hasi aurretik lekuko bakoitzak bere izena eta datu pertsonalak ematen ditu.

Iraupena: hiru ordu laurden eta ordu bete bitarteko grabaketak egiten ditugu, transkripzioak egiteko orduan nahikoa material izan dezagun.

Grabagailua: Grabagailua walkman arrunta da, azken batean korpus azterketa baita gurea eta ez fonetiko. Grabagailuak, ari baten muturrean mikrofono estereo indartsua du, honen laguntzaz ohiko grabagailu eta mikrofono handiek jartzen duten errespetu hotza-rekin apurtu eta lau aldeetatik berdin grabatzea lortzen dugu. Grabagailua gure eskura dago, ez mahaiaren erdian, leku diskretoan eta eztabaida eten gabe zinta aldatzeko leku errazean. Grabagailua Aiwa markakoa da, HS, JS145 modeloa.

Dinamizatzailea: eztabaidan egon eta grabaketa egiten du gure ordezkariak, edo ordezkariak, beti bat edo bi, teknika bera erabiliz kasu guztietan. Eztabaidaren arrazoiak azaldu eta berak ez duela parte hartuko argitu ostean, taldean testuak banatu eta irakurtzeko astia ematen die, irakurri eta testuen inguruko zalantzak argitu ondoren eztabaidari hasiera ematen zaio dimamizatzaileak egindako galdera baten bidez. Une horretan eztabaida hasten da eta gainbehera egiten duen unean dinamizatzaileak beste galdera bat egiten du behar izanez gero. Galdera hauek aldeztu aurretik presturiko galdetegiak jarraituz eginak dira eta denak daude eztabaida piztera bideratuak. Dinamizatzaileak ez du parte hartzen eztabaida indarrean dagoen bitartean. Esandakoak esan ondoren, ordea, argudioak agorturik, eztabaida itzaltzen da eta une horretan dinamizatzaileak galdera berri baten bidez eztabaidari bide berri bat ematen dio.

Behar beste grabatu ondoren eztabaidari emaiara eman eta lekukoei datu soziolinguistikokoak zituen fitxa betetzeko eskatzen zaie. Agerian dagoenez datu horiek ez dutela aitzakiatzat jarritako helburuarekin loturarik, grabaketaren benetako helburua zein den azaltzen zaie.

Operatzaile Pragmatikoak aztertze erdarazko dokumentazioaren jasoketa egiteko metodologia bera erabili dugu, testua ere bera izan da (erdarara itzulia, noski). Diferentzia, bakarra, ordea, eremu soziolinguistikokoaren araberrak baldintzarik ez izatea izan da. Alegia,

erdaraz funtzionatzen duten lagunarteak behar izan ditugu, besterik gabe. Horretarako, Oreretako Koldo Mitxelena ikastetxeko A ereduko 3. BBBko bi lagun talde hautatu ditugu eta gure kontaktua euren irakasle eta euskara mintegiko buru den Anjel Elortegi izan da..

#### ***2.4. Materialea aztertzeo erabilitako tresneria eta lorturiko ondorioak zein testuingurutan kokatu behar diren:***

Ikerketa hau deskribaketa kuantitatiboan oinarritzen denez, azterketarako tresneria egokiaren beharrea geunden. Honen korpus zabalarekin lan egiteko, 51 orrialdetako transkripzioa, baliapide informatikoak erabili ditugu, batez ere lexikoaren maiztasun azterketa egiteko, SPD.T programaz hain zuzen.

Horrekin batera transkripzioa, lematizazioa, hustuketa... egiteko Word.6 programa aski izan dugu. Bertako emaitzak, ondoren kuantitatiboki aztertzeo, kalkulu aritmetiko hutsak baino ez ditugu egin behar izan.

Emaitza kuantitatiboen gaineko balorazio kualitatiboa egiteko sarrera eta eranskin teorikoetan aipatzen diren materiale teorikoak erabili ditugu.

Lexikoa aztertzeo, berriz, Hiru Mila Hiztegiak baliatu gara. Kasu bakar batean, ordea, “Koadrila” hitzarenean hain zuzen, ez dugu aintzat hartu hiztegiaren esana. Guk hasieratik erabili dugu hitz hau lagunarte finkoa adierazteko, baita lekukoei idatziz emaniko testuetan ere, beraz, hasierako hautuari eutsi genion. Gainerako lexikoa honen bitartez aztertu dugu, eta hiztegian ageri ez ziren hitzak mailegutzat jo ditugu.

Beraz, materiale honek gazte hauen diskurtsoan agertutakoaren zati bat besterik ez du biltzen eta ondorioz ezin esan “gazte” kutsua ematen dioten elementu guztien azterketa egin dugunik, ez eta testuinguru naturalean izan dituzten nabardura guztiak jaso eta aztertu ditugunik ere. Izan ere, transkripzioak, bateratzeak, lematizatu eta prestasun hiztegia egiteak nabardurak galtzea dakar. Esaterako, lexikoan izenak eta aditz nagusien partizipioak soilik aztertu izanak, bazterrean utzi ditu izen lagun edo aditz laguneren artean egon zitezkeen argibideak.

Beraz, ikerketa honetan agerturiko ondorioak testuinguru horretan ulertu behar dira eta ez dira, inondik inora, lagunarteko gazte euskararen deskripzio osoa, ez eta errealia-tearen irudi zehatza, hurbilpen ahalegina baizik. Eta hein horretan ekarpen mailan ulertu behar da hemen agertzen dena.

#### ***2.5. Materialeak nola prestatu diren:***

Materiale grabatua aztertu ahal izateko lehen pausoa transkripzioa egitea delarik, grabaketaren lehen hamar minutuak alde batera utzita ondorengo ordu erdia transkribatu dugu. Operatzaile Pragmatikoak aztertzerakoan, berriz, lehen hamar minutuak kendu eta ondorengo ordu laurdena transkribatu dugu maiztasun oso handikoak direnez bertan jasotako corpusa aski izango delakoan.

Lehen transkripzioa literala izan da, alegia, alfabeto fonetikorik erabili gabe egingakoa, gure alfabetoaren bitartez gauzak ahoz ebaki bezala transkribatu ditugu.

Eztabaidaren harian solaskide baten esanak besteren batek eteten baldin baditu hitzak etorritako hurrenkera berean eman ditugu norenak diren adieraziz eta ondoren etendako jardunarekin jarraituz.

Solaskide bakoitzaren esanak identifikazio zenbaki baten bidez eman ditugu ber-baldi bakoitzean.

Transkripzio literal horiek guztiak batera aztertu ahal izateko, euskara batuaren idaztarauetara ekarri ditugu ondoren. Alegia, esandakoaren erro lexikoa errespetatuz ortografia eta morfologia batuan jarri ditugu.

Bateratutako transkripzio horiek, ondoren, lematizatu egin ditugu. Alegia, erro soiletara ekarri ezaugarri morfologikoak kenduta. Honela, azaleko diferentziak sahiestuz, ahalik eta oinarri komunena duen korpusa lortu dugu aztertzeko. Honen azken helburua SPD.T programa informatikoaren bitartez maiztasunak aztertzeko materialea prestatzea izan da.

Dena den, hori egin aurretik beste bi lan egin ditugu: subjektu bakoitzaren ekoiz-pena testu bakarrean bildu eta formula eta perpaus hibridoen hustuketa egin. Hustuketa hau subjektuka antolatu dugu eta berau aztertzeko moduko zerrendetan jarri.

Hortik ateratako maiztasun hiztegiari horrezaz gain Operatzaile Pragmatikoak, junta-gailuak, lokailuak... eta aztergai ez ziren elementu guztiak kendu dizkiogunean prestasun hiztegia izan dugu esku artean. Prestasun hiztegi hau bera ere SPD.T programatik pasatuz maiztasunak atera eta izen eta aditzen zenbaketa egiteko moduan izan gara.

Operatzaile Pragmatikoen azterketa egiteko transkripzio literalean bertan oinarrituz, bertan ageri diren operatzaileak lematizatuz bateratu ditugu eta ondoren egin zenbaketa. Zenbaketa herrika egin dugu.

Prozesu guzti honen ondoren eskuetan dugun materiale aztergarria hauxe da:

- a) Erabilitako formulen zerrenda subjektuka antolatua
- b) Erabilitako perpaus hibridoen zerrenda subjektuka antolatua
- c) Erabilitako lexikoaren (izen eta aditzak) zerrenda zenbatua subjektuka antolatua
- d) Lau taldetan agertutako diskurtso operatzaileen zerrenda bateratua eta taldeka antolatua.



### 3. EMAITZAK

Ondoren datozenak emaitza nagusiak dira. Eranskinean daude taula orokorrak.

#### 3.1. Ezaugarri orokorrak:

##### 3.1.1. Formulak:

- a) Corpusa:
  - Euskarazkoak: % 32,63
  - Maileguak: % 18,75
  - Kalkoak: % 48,61

Beraz, corpusean % 67,36 erdal jatorriko formulak dira

- b) Maiztasuna:
  - Euskarazkoak: % 40,56
  - Maileguak: % 13,74
  - Kalkoak: % 45,69

Beraz, maiztasunean % 59,43 erdal jatorriko formulak dira

Hiztunen batz besteko formulen maiztasuna jatorriaren arabera bereizten baldin badugu, hemen ere antzeko emaitza ikusiko dugu, alegia, % 59,42a erdal jatorriko formulak direla.

##### 3.1.2. Hibridoak

Perpauk hibrido ugari dago, batz beste hiztun bakoitzari 3,4 perpauk hibrido dago (orotara 203 perpauk). Zerrenda honetan ez ditugu sartu erdarazko formulak (mailegatu zein kalkatu) edo lexikoa duten euskarazko perpauk. Hauek ere aintzat hartuz gero kopuru askoz ere handiago baten aurrean egongo ginatke, noski. Hiztun batetik bestera alde handiak baldin badaude ere ia denek egiten dituzte. 11 baino ez dira perpauk hibrido bakar bat ere egin ez dutenak, hauen artean gehienak, berriz, oso diskurtso laburra eginak, beraz, hibridoak egiteko aukera bera ere askoz murriztagoa.

##### 3.1.3. Operatzaile Pragmatikoak:

###### a) Corpusa:

Euskarazko taldeak eta erdarazkoak corpusean forma kopuru berdintsua dute, 32 eta 34 hurrenez hurren. Euskaldunek erabilitako corpusa aztertuz, ordea, mailegu eta kalkoak dira nagusi, orotara % 69,69. Erdarazkoan, berriz, esateak alferrikakoa badirudi ere, ez dago euskaratik mailegaturiko forma bakar bat ere.

Dena den, mailegu eta kalko horien artean gehiago dira maileguak (% 51,51) kalkoak baino (%18,18). Formulekin gertatzen zenaren kontrakoa. Honek Maschlerren hi-potesia indartzen du. Alegia, ukipen egoeratan hiztunek hizkuntza baten aldeko Operatzaile Pragmatikoen alde egiten dutela dioena.

### **b) Maiztasuna:**

Maiztasunez ere kalko eta maileguak dira nagusi, kalkoak % 27,85, maileguak % 31,75, orotara % 59,6.

Datu hauek corpusarekin alderatuz agerian geldintzen da maiztasun aldetik maileguen indarra ez dela horren handia. Kezkagarria da, ordea, maiztasunean indartsuak ez baldin badira ere euskarazkoak maizago erabili arren, erreserban dauden besteak erdarazkoak izatea, horrek esan nahi baitu aberastasuna kasu honetan erdal corpusean dagoela.

#### *3.1.4. Lexikoa:*

Puntu honetan ez dugu corpora neurtu, bai ordea maiztasuna. Azterketa horretan ageri denez, eta batz bestekoa eginda, maileguak % 14,06 dira (% 8,19 izenetan eta % 14,78 aditzetan). Kalkoak, lexikoan antzematen oso zailak direnez, eta are gehiago honen dokumentazio zabalean, ez ditugu zenbatu. Dena den, bistan da lexiko mailan erdararekiko menpekotasuna ez dela, inondik inora gainerako eremuetan agertu zaiguna bezain indar-tsua.

#### *3.1.5. Laburbilduz:*

Egindako neurketen argitan funtzio metalinguistikoa indarrean dagoenean erdara-ren presentzia nagusi bihurtzen da, bai corpusean eta bai maiztasunean. Izan ere, lexiko arruntaren ezterketan egoera guztiz bestelakoa baita eta maiztasunean maileguak ez dira % 14,06 baino. Kalkoak, zenbatu ez baldin baditugu ere ez dira asko izango, gehienak formula eta operatzaileen zerrendan bilduta egongo baitira.

Hizkuntzaren eguneroko errealitateak euskara ihartzen du, adierazgarritasunik gabe uzten erdararen mesedetan. Eragina corpusean izan ohi da indartsuena. Maiztasunean, berriz, alde handirik ez badago ere indar gutxiago du. Horrek, batetik euskarazko formekiko joera edozein modutan ttikia dela adierazten du, eta bestalde,erdarazko multzoa euskarazkoa baino aberatsagoa dela.

### **3.2. Herriz-Herri, eremu soziolinguistikoak**

Formuletan maiztasuna soilik emango dugu, hibridoetan zein lexikoan batz bestekoa.

#### **Lizarra**

- Formulak: maileguak % 12,26 + kalkoak % 54,71 = **orotara % 66,97**
- Hibridoak: **5,8 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: **maileguak % 12,88**

#### **•Arrasate 1**

- Formulak: maileguak % 13,56 + kalkoak % 50 = **orotara % 63,56**

- Hibridoak: **3,3 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: **maileguak % 11,28**

#### **Arrasate 2**

- Formulak: maileguak % 11,76 + kalkoak % 29,41 = **orotara % 41,17**
- Hibridoak: **7 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: maileguak % **22,59**

#### **Altsasu**

- Formulak: maileguak % 12,5 + kalkoak % 45 = **orotara % 57,5**
- Hibridoak: **11 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: **maileguak % 18,48**

#### **Dima**

- Formulak: maileguak % 23,07 + kalkoak % 46,15 = **orotara 69,22**
- Hibridoak: **10,6 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: **maileguak % 28,53**

#### **Galdakao**

- Formulak: maileguak % 8,98 + kalkoak % 42,7 = **orotara % 51,68**
- Hibridoak: **1,3 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: **maileguak % 11,45**

#### **Segura**

- Formulak: maileguak % 2,02 + kalkoak 44,45 = **orotara % 46,47**
- Hibridoak: **2 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: **maileguak % 7,24**

#### **Portugalete**

- Formulak: maileguak % 20,97 + % 30,64 = **orotara % 51,61**
- Hibridoak: **1,85 perpaus pertsonako**
- Lexikoa: **maileguak % 11,58**

#### **Orohar:**

##### **Formulak:**

Erdal jatorriko formulen maiztasuna %50etik gora dute ia herri guztiek. Hortik behera dabilzanek (Segura eta Arrasate 2) ere oso kopuru altuak dituzte, biak % 40etik gora.

Mailegu eta kalkoen proportzioan ere ez dago erregularutasunik, emaitza kontraesankorrak daude (Dima eta Seguraren artekoak esaterako).

Ezin esan, bada hipotesietan markatutako diferentziak formulen atalean oso nabarmen ageri direnik, eta are gutxiago esku artean dugunarekin diferentzia argi eta garbiak daudenik.

### **Hibridoak:**

Bataz besteko perpaus hibrido gutxien duten herriak oso tipologia desberdinekoak dira (Portugaleta, Segura, Galdakao). Gehien dutenen artean ere antzeko zerbait gertatzen da. Izan ere, Altsasu eta Dima dira, bata erdaldundua eta bestea euskalduna.

Beraz, hemen ere ez dago eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak eta emaitzen araberako bereizketa argirik.

### **Lexikoa:**

Herrien arteko bataz besteko mailegatzea % 15,5ekoa da. Badaude, dena den, zen-bait punta. Mailegatze txikiena duena Segura da, euskaldunena, bestalde. Gehien dutenak berriz Arrasate 2, Altsasu eta Dima. Oso tipologia desberdineko herriak dira. Emaitza hau ere, bada oso kontuz hartu beharrekoa da.

Agerian gelditzen da hemen ez dagoela hasieran eremu soziolinguistikoak zehazterakoan eraikitako hipotesiak eta emaitzen artean kidetasunik. Esku artean darabilgun laginaren ezaugarriak direla eta (kontraste talderik ez, kideen artean parte hartze maila desberdina...) norbanakoaren ekarpenak berebiziko garrantzia hartzen duela eta beronen emaitzak eremu soziolinguistikoak aztertuz eskuratutakoak baino argigarriagoak izango direla.

Horretara jo aurretik eta saihetseko azterketak egiteko zenbait froga gehiago bildu genuen. Dima eta Seguraren arteko alderaketa, Arrasateko bi taldeen artekoa edo Opera-tzaile Pragmatikoak direla eta, Lizarra eta Seguraren artekoa. Ikus dezagun zein izan diren kasu bakoitzean agertu zaizkigun emaitzak.

### **Dima eta Segura: Nekazal giroko bi herri euskaldun**

Ezaugarri beretsuko bi herri izan arren badirudi baten emaitzak bestearenaren kontrakoak direla. Kasu honetan Dimak Segurak baino emaitza txarragoak ditu aztergune guztietan. Kidetasun bakarra kalkoen maiztasunean dago, izan ere lau puntuko aldea besterik ez baitago batetik bestera (% 44,45 Segurak eta % 46,15 Dimak)

### **Arrasateko bi taldeak: unibertsitaterako ikasketak egiten ari direnak eta lan mundurako ikasketak egiten ari direnak.**

Orohar unibertsitaterako ikasketak egiten ari direnek emaitza hobeak dituzte, izan ere erdal mailegu gutxiago dute lexikoan, beraz euskarazkoa aberatsagoa eta hibrido gutxiago ere bai, eta ondorioz, zuzentasun handiagoa. Formulatan, berriz, egoera bestelakoa da. Dena den, formulen artean mailegatzea berdintsua baldin badute ere (Arrasate 1ek % 13,56 eta Arrasate 2k % 11,76) kalkoetan diferentzia izugarria da. Alegia, Arrasate 1eko hiztunek darabiltzaten kalkoak %50era iristen dira eta Arrasate 2koek darabiltzatenak, berriz, %29,41 dira. Diferentzia hori alde batera utzita, ordea, badirudi gure hipotesia frogatzen dela. Alegia,

lagunartean ere zenbat eta euskarazko ikasketa maila altuagoa, orduan eta erdararekiko menpekotasun tikiagoa.

### **Operatzaile Pragmatikoak Segura eta Lizarran.**

Forma kopurua eta maiztasun kopuruak taldez-talde nahikoa orekatuak dira. Corpusari dagokionez gutxi gora-behera heren bat euskarazkoa da bi multzoetan, eta maiztasunari dagokionez, berriz, beste hainbeste. Aipatzekoa da, ordea, B taldeak (Lizarra) euskarazko formak A taldeak (Segura) baino maiztasun handiagoz erabiltzen dituela (A taldeak % 33,56 eta B taldeak % 46,46). Aldeak, dena den, eta emaitza guztiak kontuan hartuta, ez dira nabarmenegiak. Beraz, taldekako kopuruek kopuru orokorretan lorturiko emaitzak frogatzen dituzte, alegia, euskarazko formak gutxiengo direla diskurtso operatzailearen eremuan eta hau erdaldundutako zein herri euskaldunetako hiztunen artean gertatzen dela.

### **3.3. Subjektuka, ezaugarri soziolinguistikoen arabera.**

Subjektuek beraiek betetako galdetegian agertzen ziren emaitzen arabera egindako azterketa da. Lau arretagune izan ditugu: **hizkuntz joera etxean eta kalean, ikasketak eta euskarazko kultur produkzioaren jarraipena.**

Ikasketak: Arrasateko bi taldeen arteko alderaketak frogatu diguna gainerako subjektuetan ere agertzen da, alegia, zenbat eta ikasketa maila jasoagoa orduan eta erdararekiko menpekotasun tikiagoa.

Etxeko hizkuntz joera: etxean euskaraz egiten dutenek emaitza hobekak dituzten arren diferentzia ez da oso handia.

Hizkuntz joera kalean: kalean euskaraz egiteko ohitura dutenek ez dutenek baino emaitza askoz hobekak ematen dituzte. Datu hau, ordea, oso kontuz hartzekoa bada ere, aipagarria da, Dimako lekukoak direla joera hau argien frogatzen dutenak. Izan ere, ingurune euskalduna eta euskarazko ikasketak izan arren ez baitute kalean (batez ere lagun artean) euskara erabiltzeko ohiturarik eta erdararekiko menpekotasun handiagoa salatzen dute alderdi guztietan.

Euskarazko kultur produkzioaren jarraipena: Honek egiten du diferentziarik handiena. Lagina mugatuegia dela jakinik, eta emaitzak maila berean hartuz, gure datuen arabera euskarazko kultur produkzioa jarraitzen dutenek ez dutenen aldean erdararekiko menpekotasun askoz tikiagoa dute.

Beraz, erdararekiko menpekotasunik tikiena adierazten dute etxean eta kalean euskaraz aritzeko ohitura dutenek. Alegia eguneroko bizitzan euskara elementu funtzional moduan darabiltenek.



## 4. ONDORIOAK

### Ateratako ondorio nagusien bilduma eta gogoeta:

Materiale guztia aztertu ondoren hauek dira ondorio nagusiak:

- Gazte hauen hizkeran elementu amankomunetako bat erdararen presentzia da. Formula, hibrido, Operatzaile Pragmatiko edo lexikoan argi eta garbi azaltzen da. Beraz, gazte hauen diskurtsoari “gazte” kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki. Pentsatzekoa da, gure azterketatik hori ondorioztatu ezin bada ere, erdarekiko menpekotasunaren bidezko euskararen zapuzteak, zapuzketak berak, ez ote duen “gazte” kutsuaren eksklusibitatea hartu. Helduen euskararengandik bereizi eta erdaldun gazteen diskurtsora hurbilduz autoafirmazioa eta bereizketa maila bikoitzean lortzen baitituzte. Gure datuetan honen alde edo kontra zeharka egiten duten daturik ageri bada ere, esandakoa hipotesi mailan utziko dugu, azterketa zehatzen zain.
- Eremu soziolinguistikoaren araberrako azterketa eginez ez da bereizketa argirik ikusten. Herririk euskaldunenean, Segura, besteetan baino menpekotasun maila txikiagoa agertzen bada ere, hibridazioan, lexikoan edo formulatan diferentziak, formulen kasuan, ez dira hain handiak eta Operatzaile Pragmatikoen kasuan ia berdinak. Beraz, eremu soziolinguistikoak ez dira muga nagusia, hiztun bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa aztertu beharra dago ezer ulertu ahal izateko. Honek, besteak beste, gune euskaldunen inpermeabilitatearen mito herritarra indarririk gabe uzten du eta hizkuntz berreskurapenean lehentasun berriak jarri beharko lituzkeelakoan gaude.
- Hiztun bakoitzak soslai berezia du. Dena den, euskararen erabilpen funtzionala egiten dutenek gainerakoek baino emaitza hobekak lortzen dituzte. Erabilpen eremuen artean eta funtzionaltasunaren emaitzei begira diferentziarik handiena etxean edo kalean euskaraz aritzeko ohitura dutenek jartzen dute. Garrantzitsuak izan arren ez dirudite aurreko biak bezain eraginkorrak direnik ikasketa maila edo euskarazko kultur ekoizpenaren jarraipenak. Dena den, eragile hau da eraginkorrena egoera soziolinguistikorik txarrenetan ere (Lizarra eta Portugalete) hiztunengan eragiteko gaitasunik handiena duena baita. Beraz, hizkuntzaren erabilpen funtzionala bera da hizkuntz osasunarentzat botikarik onena.

Ondorio hauen harian zenbait ekarpen:

Gazte hauen hizkeran elementu amankomunetako bat erdararen presentzia da. Formula, hibrido, Operatzaile Pragmatiko edo lexikoan argi eta garbi azaltzen da. Beraz, gazte hauen diskurtsoari “gazte” kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki. Hor dute harrobia, eta ondorioz, euskarak ez du erreferentzialtasunik. Honek aurretik egindako beste ikerketa baten emaitzekin bat egiten du<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Agirre, L., Franko, A. (1989) “Gazteak eta euskara zonalde euskaldun batean” in Jakin 54. Eztabaida taldeen bitartez egindako ikerketa kualitatiboa da. Bertan erdara jotzeko maizenik agertzen diren arrazoien artean, “Euskararen mugak: Hizkuntzen prestigioa” atalean, besteak beste, honako hau ageri da: “Euskarak ez du balio gauza guztiez hitz egiteko” eta honela arrazoitzen da: “Gazte hauei gai edo arlo berezietan euskara ez zaie espresatzeko baliagarria gertatzen eta gai batzuez euskaraz hitz egiteko ez dituzte espresioak ezagutzen.” Ematen dituen adibideen artean insultatzea edo politikaz hitz egitea daude.

Ezagutza soilarekin, erabilpen erreala, egunerokotasunari atxikia, indartu gabe, ezin zaio aurre egin arazo honi.

Honek guztiak euskararen normalkuntza bidean ortzimugan puntu zehatz bat jarri digu, gazteen lagun arteko hizkera, eta honen ondoan, euskaraz komunikatzeko errepertorioa lantzen joatearena, dibergentziari dagokion lekua aitortuz eta ordezkapen prozesuan une honetan euskara ahultzen duten eragile nagusiak euskararen alde jarriaz.

Ezer berririk esan ez badugu ere balio izan beza honek askoren ustea datu zehatzetan ikusteko eta geroan arazo honen inguruan egingo diren gogoeta eta ekarpenen bidea zertxobait argitzeko.



## 5. ERANSKINAK

### 1. Eranskina

#### Kode nahasketa (Code Switching) eta mailegatzea

##### Sarrera:

“Code switching” (CS) kontzeptoaren ondoan, “code mixing” (CM) eta mailega-tzearena agertzen dira ezinbestean. Izan ere, non dago hitz arrotz bat edo perpaus zati arrotz bat txertatzearen arteko aldea?

*The Encyclopediak*<sup>1</sup> Codeswitching-az ari delarik honako definizioa ematen digu:

Hiztun batek, egoera edo helburu komunikatiboaren arabera, hizkuntza edo hizkun-tza aldaera desberdinetako elementuen artean egiten den alternantzia, edo justaposizioa, adierazten du.

Kode alternantzia (CS) eta Kode Nahasketa (CM) bereiztea ez da erraza eta egileen artean ez dago adostasunik. Guk, dena den, ez dugu horretan ahaleginik egingo eta besterik gabe alternantzia eta mailegatzea bereiziko ditugu.

##### Ezaugarriak:

Elkarrizketa mailako fenomenua da. Orohar CS-ak eragile desberdinak dituela esan daiteke eta horien arabera mota desberdinetakoak daudela. Batzuk **egoera mailakoak** dira eta besteak **elkarrizketa mailakoak**.

Egoera mailakoak arau sozialek menderatzen dituzte eta diglosia adierazten dute. Elkarrizketa mailako CS-aren arauak ez dirudite egoera mailakoek bezain argiak, askoz ere gaitzagoak dira zehaztasunez identifikatzeko. Batzutan hitzuna jabetzen da aldaketaz, beste batzutan, ordea, ez.

CS-ak luzera desberdinekoak izan daitezke. Hasi testuinguru zehatz bateko elkarrizketa osoa menderatzen eta hitz bakar baten alternantziaraino. Lehenengo kasua egoera mailako CS-a da. Elkarrizketa mailakoak, berriz, elkarrizketa zati batetik hasi eta perpaus oso bat edo perpaus osagai guztietarainokoa izan daiteke. Hitz bakarrekoa denean “hitz bakarreko CS” edo “mailegua” deitzen zaio. Guk, ordea, honi mailegu deituko diogu.

Dentsitateari dagokionez alternantziaren dentsitatea txikia da egoera mailakoan eta handia, berriz, elkarrizketa mailakoan. Maileguaren kasuan, perpausak hartu duen mailegu kopuruaren arabera, dentsitatea handia edo txikia izan daiteke.

Hiru arretagune nagusi daude CS batean: CS-a eragin duten faktore sozialak, propio jorrotutako estilistika eta beste zenbait efektu pragmatikoren izaera eta CS ugari dituen diskurtsoaren ezaugarri linguistikoak.

<sup>1</sup> Asher R.E. (1994): *The Encyclopedia of Language and Linguistics*. London, Pergamon Press

Egun, CS egiten duen hiztun batek informazio soziala ematen du, besteak beste, bera eta solaskidearen arteko harreman soziala eraikitzen du amankomunean duten horretan oinarrituz. Batzutan CS-aren eraginez kode bereziak eraikitzen dira eta beronen hiztunak ez dira sentitzen kode horren oinarrian dauden hizkuntzetariko baten hiztunak, kode berri hori erabiltzen duen komunitateko partaide baizik. Zenbait kasutan CS-ak faktore sozialekin estilistiko edo bestelakoekin baino lotuago dirudi.

Elkarrizketa mailako CS-ak hizkuntza horretan dagoen edo hiztunak duen hutsune baten ondorioz sortzen dira. Bentahilak Marokkon eginiko ikerketan frogatu zuen legez egoera diglosikoetan mailegu bat erabiltzeak CS egiteko bidea ematen du nahiz eta hori egin beharrik ez izan esan nahi zena esateko<sup>2</sup>. Euskararen kasuan ere interesgarria da hau.

CS-a duten perpausen barne egitura aztertzea ez da batere erraza, besteak beste fonologia, sintaxia eta mailegatze mailako inplikazioak dituelako. Honek kodearen loturak identifikatzea eragozten du. Honen inguruan hamaika teoria eraiki izan da, antza denez, badirudi CS-ak lehendik dauden markoak eraldatzen dituztela marko berri bat sortaraziz. Marko berri horrek, ordea, indartsuenaren ekarpena hartzen du, gure azterketaren emaitzak horren adibide.

CS duen esaldi baten azterketak nahastea gertatu deneko puntua identifikatzea eskatzen du eta non gertatu den bi kodeen arteko konbergentzia, ez da nolana hiko arazoa. Zaila da, ordea, bide honetatik sortzen diren galdera guztiak erantzutea eta are zailagoa bi hizkuntza izan beharrean nahasi direnak bi aldaera direnean nahastutakoak.

CS-a hiztun edo hizkuntz gabeziagatik ala aparteko gaitasunaren ondorio da? Sarritan aipatzen den arazoa da, dena den, CS eta hizkuntz gaitasunak elkar ukatzen ote du-te? Lehen esan dugun bezala egoera mailako eta elkarrizketa mailako CS-ak daude. Egoera mailan CS eta CM diskurtso estrategia garrantzitsuak dira eta ez gabeziak. CS-ak diskur-tsoaren erdian hizkuntza batetik bestera salto egitea esan nahi du, eta hori garrantzitsua da hiztunarentzat mintzagai duen gaia edo komunikazioa galera izan dezakeen asmoaren-tzat.

Egoera mailakoetan garrantzitsua da bi kodeak menderatzea behar denean bat eta behar denean bestea erabiltzeko, ez da hori gertatzen, ordea, elkarrizketa mailan. Hor, perpaus barruko kontua da eta inork pentsa lezake hiztuna ez dela behar bezala hitz egiteko gai, ez hizkuntza batean eta ez bestean. Ohikoa da, beraz, norberaren hizkuntzan hutsuneak dituztenek CS-era jotzen dutela pentsatzea. Dena den, hau kasu batzutan horrela den arren ez da beti egia.

Azken bi aipamen hauek, ordea, ikergaiaren sarreran esan bezala, euskararen testuinguruan kokatu behar ditugu. Alegia, hizkuntz ukipen egoera bortitza bizi duten hizkuntza gutxiagotuen testuinguruan. Hizkuntz ukipena eta ondorioz kode alternantzia gaur egun mundu zabalean maizenik ageri zaigun egoera bada ere, ezin ahantz dezakegu, gurea bezalako testuinguruetan honek hizkuntz heriotza ekar dezakeela baldin eta gutxiagotze bidean den hizkuntza horrek bizirauteko eta menpekotasunetik askatzeko behar diren tresna, baliapideak indarrean jartzen ez baditu. Beraz, itxuraz naturala den egoera baten irakurketa maila horretan egin beharrean gara hizkuntza gutxituetako hiztunok.

## Mailegatzea

<sup>2</sup> Asher R.E. (1994): *The Encyclopedia of Language and Linguistics*. London, Pergamon Press

Atal honen hasieran neurri desberdineko CS-ak daudela esan dugu. Eta mailegua da denetan egiturarik txikiena alternatzen duena, hitz edo formula (unitate lexikoa, azken batean) baten neurrikoa, alegia. Mailegatzeak hizkuntza edo kode batetik beste baterako hitz bat edo adiera bat hartzea esan nahi du, alegia, jatorrizko aldaera batetik beste batera hedatu den forma bat da.

Mailegatzearen eraginpean erroa egon ohi da eta esaldi oso bat izan daiteke. Maile-gatzea hizkuntza batetik bestera edo hizkuntz aldaera batetik bestera egin daiteke. Mailega-tzeak hizkuntz egituraren alderdi anitzetan eragiten du, batez ere fonetika-fonologian, mor-fologian, eta sistema semantikoan. Hizkuntza orok mailegu bat berera ekartzeko hamaika bide ezberdin izan dezake. Dena den, mailegatzean alderdi linguistikoaz gain alderdi historiko eta soziolinguistikoa (hizkuntz ukipena) ere protagonista dira.

Beti ez da erraza, mailegua, hitz bakarreko CS, eta elkarrizketa mailakoa bereizten. Ere-  
 mu elebidunetako diskurtsoaren ezaugarriak aztertuz biak nahikoa antzekoak gerta daitezkeela ikusiko dugu, esaterako, mailegu zenbait erdizka egoki daitezke hizkuntza berrira eta hitzun gehienak hitzaren jatorriaren jabe izan daitezke, horixe gertatzen da, esaterako, latinetik, hartutako esapideak (quid pro quo) erabiltzen ditugunean (zenbaitetan gordinki ematen dira maileguak). Beste hitzetan esanda, maileguak CS-aren antza izan dezake jatorrizko itxura eta ezaugarriak gordetzen dituen neurrian eta era berean CS batek mailegu batena batez ere laburrak direnean eta beste hizkuntzaren sintaxian txertatu dire-nean.. Dena den, eremu labainkorra izaten jarraitzen du honek. Guk, beraz, bereizketa egite-ko hasieran jarritako irizpideari eutsiko diogu.

Bereizketa egiteko orduan, hau ere beste arazo bat da, hitz baten natibizatzea maila batean bestean baino aurreratuago egon daiteke eta horren arabera maila batean mailegu itxura izan eta bestean ez. Kasuistika oso zabala da.

Mailegatzea ez da interferentzia, Mailegatzeak formak kopiatzea esan nahi du, Inter-ferentziak, aldiz, aldaketak hizkuntza hartzailearen egituraren barneraturik daudela. Hizkuntza sendoetan zaila da jakiten aldaketa bat hizkuntzaren baitakoa den ala interferentzia baten ondorio, izan ere, hizkuntza hauek oso selektiboak dira eta aldaketak ez dira berariazkoak. Dena den, gure kasuan biziki interesgarria gerta daiteke interferentziarik badenentz begira-tzea, batez ere gazteen lagunarteko hizkeran.

Ukipen egoera iraunkorretan lexikoi mailako konbergentzia semantikoa sortzen da, unean uneko mailegatzeaz gain. Konbergentzia lexikoa gertatzeko bide bat kalkoa da: hizkuntzaren berezko bitartekoez baliatuz beste hizkuntza bateko konposatu edo esaldia sortzea mailegatu beharrik izan gabe (mailegu semantikoa).

Mailegu oro fonologikoki egokitu behar da eta mailegua guztiz arrotz gertatzen denean egokitzeko sistema guztiak jartzen dira indarrean.

Mailegatzeako mekanismoak:

- Erroaren egokipen fonologikoa
- Spelling pronunciations: jatorrizko hizkuntzan bezala ebakitzea soinuak
- Berlexifikatzea eta mailegu hibridoak: berlexifikatzea gertatzen da hizkuntza bateko hiztegia hein handi batean beste batekoak ordezkatzeko duenean, horixe gertatzen da pidgin eta kreoleretan, baina baita egoera lasaiagoetan ere (Marokkon frantsesak espainolaren lekua hartu du bere izen ona handitzearekin)<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Bentahila A. (1983) "Motivations for code-switching among Arabic-French bilinguals in Morocco" in *Language and Communication* 3 (3): 233-43 or.

Hizkuntza batean iturri bereko maileguak egoteak mailegu berrien egokitzapena errazten dute

- Egokitze morfologikoa: sarritan maileguak ez du inolako egokitzerik izaten eta bere horretan erabiltzen da (esapideak, esaterako). Gainera, kasu oso berezitan, mailegu hori morfologikoki hain izaten da ezegonkorra hitzaren estatusa ezagu-tezina egiten duela. Gehienetan, ordea, mailegua behar den horretara egokitzen da, eta hizkuntzak berak mailegatzen duen forma egokitzeko orduan arazo gutxien sortuko diona hautatzen du. Dena den, gehienetan mailegatutako forma mailegatzailaren sisteman beste edozein hitz bezalaxe sartzen da eta hizkuntzak berak ahaleginak egiten ditu, dituen bitartekoez baliatuz, hitzaren arrotasuna saihesteko.
- Morfema gramatikalen mailegua: morfema gramatikalen mailegua garai batean uste baino ohikoagoa da, esaterako eremu kolonialetan partikula subordinatzaileak zein egituratzaileak nahikoa errez mailegatzen dira, baita bertako hizkuntza kolonialistenengandik nahikoa askatu duten eremu poskolonialetan ere. Aldiz, afijoak mailegatzea ez da gauza bera, gaitzagoa da eta are zailago inflexiozko afijoak mailegatzea

Mailegua testuinguru sozial eta historikoan:

Hizkuntza ofizialak hizkuntzaren garapena arautzeko indarra du. Gutxiagotutako hizkuntzek, berriz, egoera guztiz bestelakoa dute. Menperatzearen iraupenaren arabera eta hizkuntza menperatuaren bitalitate eta gizarte mailako estatusaren arabera egoera oso desberdinak egon daitezke. Mailegatzea geroz eta hizkuntza menperatzailearen antze-koago bihurtzen da eta hizkuntza menperatuaren berezko mekanismoak geroz eta gehiagotan huts egiten du, perpaus barruko CS geroz eta ohikoagoa da, eta geroz eta zailagoa elkarrizketa mailako CS eta hitz bakarreko CSren artean bereiztea, lehena nagusitzen da. Fenomenu hauek gizarte osora hedatzen baldin badira ere diferentzia nabarmenak (asimetriak) gertatzen dira zahar eta gazteen artean, eremu urbano eta ruraletakoen artean,...

Luzaz jardun gintezke honi buruz hizketan, oraingoz, guretzat aski delakoan hone-tan utziko dugu, eta interesa duenari bibliografia arakatzeko gonbitea luzatzen diogu<sup>4</sup>

<sup>4</sup> Gai honi buruzko bibliografia The Encyclopedian termino honi buruzko sarreraren amaieran topatuko duzue. Besteak beste biziki interesgarria da honako liburu hau: *Codeswitching*. Multilingual Matters, Eastman (1991)

## 2. Eranskina

### Gazteen hizkeraz zenbait aipamen

Ondoren datorrena Gasteizen Imanol Esnaolak “Gazteen hizkeraz hemen eta orain” hitzaldian<sup>1</sup> botatako ideia nagusien bilduma da.

#### **1: Aldaketa, eskutan hartu beharreko maratila**

Ez dago antropologo izan beharrik komunitate baten talde mailako esperientzia “kultura” izeneko pertzan biltzen dela esateko. Alegia, kultura pertza barruan dagoen eltzekoa da eta esperientzia bakoitza bertara botatzen dugun osagai berri bat. Denboraren poderioz nahasketa hori geroz eta aberatsagoa da, osagai gehiago du eta neurri berean, aberastuz doan heinean, hasierako itxura hartatik eltzekoa geroz eta lodiago dago. Hizkuntza bera horren lekuko ona da, izan ere, hizkuntza ez baitago ulertzerik gizarte edo historiarik gabe ez eta gizartea historia edo hizkuntzarik gabe. Elkar eragin eta elkarrekin egiten doaz, hau da, elkarrekin ALDATUZ doaz.

Beraz, aldaketa berezkoa zaio hizkuntzari. Eta gaur egun ez dago hizkuntzalari izan beharrik hau jakiteko. Hizkuntzaren aldaketa ardatza, ordea, bikoitza da, aldaketa DIA-KRONIAN eta SINKRONIAN gertatzen da. Aldaketa diakronikoaz jabetuak gara kostata bada ere (Aldaketarena mende honen hasierako hizkuntzalariek ontzat eman bazuten ere ez zen ikertu eta zehaztu mende honetako hirurogeigarren hamarkada bitartean), bai eta aldaketa sinkronikoaz ere. Izan ere, errealitatean praktikaren bidez eragiten dugun neurrian gure hizkuntz praktikak, hizketak, gure hizkuntzaren errealitatean eragiten du, eta honela, hizkuntza aldaketaren zurrumbiloi txertatzen.

Giza esperientzia eta praktikaren bidezko hizkuntz aldaketak ez dute, halaber, ondorio bat eta bakarra izaten, errealitatea eta praktika bera ere anitzak baitira. Berdin hitz egiten al dute nagusiak nagusi artean eta langileak langile artean, berdin ikasle eta irakasleek? Eta era berean, berdin hitz egiten ote dute orain dela ehun urteko aberatsek eta gaur egungoek, nekazari, kaletar zein ikasleek? EZ, hau ere kontu ezaguna da.

Hel diezaiogun aldaketa sinkronikoari. Gaur egun esandakoa onartzen gaitza ez ba-da ere sineste hutsetik aldaketaren mamia ikustera alde handia dago. Galderak egiten hasita berehalakoan datorkigu zaparrada: Zerk eragiten du aldaketa? Zein modutan eragiten du? Zertan gauzatzen da? Nolako aldaketa motak daude? Zer esan nahi du? eta beste hamaika...

Bistakoa da hitzunok gai garela modu desberdintan hitz egiteko eta aldaketa hori gure inguruko baldintzen arabera egiten dugula. Hitz egiteko modu bat edo bestea hautatzeko orduan eragile sozialek mugatzen gaituzte eta ingurua, hizketa gaia, solaskidearen adina, sexua, gure helburua,... eta abarren arabera. Beraz, aldaketa orok esanahi soziala du.

Eragile hauek hizkuntz aldaera bat edo bestearen artean aukeratzera bultzatzen gaitzake-te. Gure helburua solaskidearen maila berean jartzea baldin bada berak darabilen hizkuntz aldaera bera erabiltzen saiatuko gara, gure lexikoa, prosodia, fonetika bestearenak izan daitezten egokituko ditugu. Aldiz, kontrako efektua lortu nahi izanez gero antitesia bilatuko dugu maila orotan. Esan bezala eragileak hamaika izan daitezke eta ondorioak beste hain-beste.

<sup>1</sup> 96ko azaroaren 12an, Fito Rodriguezen eta Imanol Esnaolak antolatutako “Ahozko euskara, oraina eta erronka berriak” hitzaldi sortaren barruan.

Aldaketa hauek hitz egiteko moldeetan gauzatzen dira. Molde hauek estereotipatuak nahiz unean unekoak izan daitezke, eragiten duten faktore nagusiak ezagutuz, ordea, horren ondorioa zein izango den aldeztatik iragar daitezke. Aldaketa hauek kode, dialekto, so-ziolekto, estilo mailakoak, ... izan daitezke. Hauetariko bakoitza ere, halaber, gainerakoekin ukipenean eta eragin eremu zabal batean dagoenez, bilakatuz doa eta ondorioz, bere baitan bilakatuz nahiz berriak sortuz eremu osoa bilakaeraren zurrumbiloan dago. Bilakaera hau, ordea, ez da apetzakoa, esan bezala, eragin indarrek markaturiko bidea jarraitzen du zintzo.

Beraz, hizkuntzalaritzak aspaldidanik onartua du aldakortasunaren kontzeptua, baita euskal hizkuntzalaritzak ere. Hori onartzeak, ordea, zein ekarpen egiten digu? Alegia, etengabeko aldaketa onartzen baldin badugu euskararen normalizazioan zer izan behar dugu kontuan? Hizkuntzaren aldakortasun sinkroniko eta diakronikoa kontuan izateak euskararen normalizazio lanetan argi egiten digu. Gaur egun hainbat berreuskalduntze plangintza indarrean daude, hasi gizabanakoa euskalduntzetik eta neurri eta izaera mota guztietako talde zein komunikazio arloak euskalduntzeraino (kultur elkarteak, administra-zioa, ikastetxeak, lantokiak, herrialdeak, Euskal Herria...) Era berean, normalizatzen hasiak edo laster batean normalizatu beharreko eremuak ere ugari dira (komunikabideetako ahozko erregistroak egokitu beharra azken urteotan aldaketaz jabeturik egokitze prozesuan dago) Horiek guztiak ezin dute begien bistatik galdu hizkuntzaren aldakortasuna. Alegia, ahozko komunikabideetako hizkera normalizatu nahi baldin bada ezin izango da idatzizko estiloan oinarritu ahozkoan baizik. Eta umorezko sail zein filma ororen erregistroa ezin izango da informatiboetakoaren pareko, nahiz eta biak ahozkoak izan,... Eta halaber, gazte batek lagunartean ez du heldu batek bezala hitz egingo, ez eta eskolako irakasle batekin bezala.

## **2: Euskara aldaketaren makinan**

Arestian euskararen normalizazioak eta berreuskalduntzeak hizkuntzaren aldakortasuna aintzat hartu behar zutela esan dugu. Hizkuntzaren aniztasun hori, ordea, ez da finkoa eta, ez da iraunkorra. Euskara bizirik dagoen hizkuntza den neurrian bizirik dauden gainerako hizkuntzak bezalaxe aldaketaren zurrumbiloan sarturik dago eta bere osasun egoerak nahiz bere gain eragiten duten indarren neurriak aldaketaren tamaina eta norabi-dean zuzen-zuzenean eragiten diote. Eragin hau soziolinguistika eta linguistika mailan gertatzen da. Jakina, aldaketa soziolinguistiko eta linguistikoak adin eta giza talde guztietara heltzen badira ere batzuetan besteetan baino gehiago eragiten dute eta ondorioz adin eta giza taldeen arabera aldeak daude, denetan ez baita era berean, indar beraz, islatzen aldaketa hori. Esaterako, hirurogei urteko batengan gazte batengan baino gutxiago nabarmenduko dira hizkuntz aldaketak, edo igeltsero batengan tabernari batengan baino (azken honek, igeltseroak ez bezala, hizkuntza baitu lan tresnatako bat, eta horrek hizkera lantzerantz behar-tzen du).

Dena den, guk ez diogu orokortasun horri helduko. Argitasuna eta osasunaren mesedetan hobea dugu aztergaia mugatzea. Tituloak iragartzen duen moduan, bada, gaztediari begira jarriko gara. Zer da, ordea, gaztedia? Eta, zergatik gazteez mintzatu eta ez haur edo edadeko jendeaz? Hor dago gure jardunaren muina.

### **2.1: Gazte gara gazte**

*Zer da gaztedia?* Funtsezkoa zaigu kontzeptu hau argitzea ezertan hasi aurretik. Gaztedia, egun hitzetik hortzera darabilgun hitza da eta denok jakin badakigu nerabearoa eta heldutasunaren artean dagoen giza taldea esan nahi duela. Muga horiek,

ordea, ez dira erabat zehatz eta argiak,... ziurrenik ez ginateke ados jarriko nerabe eta gazteen arteko bereizketa egin behar bagenu, ez eta gazte eta helduen artekoa egin behar bagenu ere. Le-geek erraz asko egin arren hizkuntzaren legeek ez diote apetaz jarritako mugei erantzuten eta beharrezkoa zaigu bestelako azalpen batez baliatzea.

Gure kasuan nerabezaroaren azken urteetan eta gaztediaren lehen urteetan dauden pertsonak joko ditugu gaztetzat. Termino zehatzetan esatearren 13 eta 21 urteen artean dau-denak joko ditugu gaztetzat. Bigarren galderari emandako erantzunarekin ulertuko duzue hautapen honen arrazoia.

**Zergatik gazteak?** Chambersen arabera<sup>2</sup> gaztaroan dute gazteen hizkuntz aldakortasun handiena, garapen eta sormenik indartsuena. Zergatik ote hau? Arestian esan dugunez, hizkuntza mailako aldaketek eragile soziologikoak dituzte, soziologikoki adierazgarriak dira eta azterketa soziologiko baten bidez alde aurretik iragar dezakegu hizkuntza mailan gertatuko dena. Hori horrela baldin bada azter dezagun, oso orokorki, gaztearen egoera (nerabezaroaren azken urteak eta gaztaroaren lehen urteetan dagoen giza talde horrena). Gazte zein nerabeak haurtzaroa atzean utzi duen neurrian gurasoekiko loturetatik askatzeko, haurra ez baino berezko nortasuna duen pertsona heldua dela frogatzeko ahalegin bizian dabil eta hori hizkuntza mailan ere gauzatzen da. Askatasun-bereizte nahi horren tresna erabilgarria da hizkuntza, gazteak bere kidekoekin elkartu eta haur zein helduengandik bereiziko duten adierazpen moldeak hautatzen ditu, era horretako hizkera eraikitzen du<sup>3</sup>. Ez da hori, ordea, eragile bakarra, garai berean nerabe-gaztea etxea eta auzoko eskola zein lagunartea utzi eta gizarte sare askoz aberatsago batean sartzen da non beretzat berriak diren erreferentzia ugari jaso eta bereganatu beharrean den. Bigarren hezkuntzarako beste ikastetxe batetara joan beharra, jolas eta aisialdi molde berriak ezagutzea, gizarte harreman sare askoz ere aberatsago batean murgiltzea,... horrek guztiak, ezinbestean, nerabe-gaztea bere bizitza osoan seguruenik inoiz berriro biziko ez duen egoera baten erdian jartzen dute. Eta, horrela, mundu hori bere esperientzia eta hautapenetatik adierazten saiatzen da, adierazpen “egokiak” eraikiz.

Kontuan izan behar dugu egun gaztaroa inoiz baino luze eta korapilatsuagoa dela. Garai batean nerabezaroaren lehen urteetatik heldutasunerako jauzia epe labur batean egiten zen, gaur egun aldiz, gurasoekiko menpekotasuna, eskola urteen luzapena, lan merkatutik urruntzea eta antzeko eragileak direla medio nerabea inoiz baino beranduago heldzen da heldutasunera eta ondorioz gaztaroa inoiz baino luzeagoa da. Horrek, jakina, talde nor-tasunari sendotu, aberastu eta nabardura ugari gehitzen dizkio. Nabardura horiek guztiak hizkuntzaren bidez ere adierazten dira<sup>4</sup>. Desberdintasunaren bidez nerabe-gazteak bere burua besteengandik bereizi eta ondorioz bere nortasuna sendotzen du. “Desberdingintza” ahalegin honetan, gazteek beren burua gainerako adin taldeetatik bereizi nahi duten bezala-xe, euren artean ere bereizi beharra sentitzen dute, izan ere, gazte guztien egoera ez baita homogenea (jatorrizko giza taldea edo maila ekonomikoari dagokionez, esaterako) Izan ere, denak gazte izan arren giza taldeen ezaugarriek helduengandik bereiztera behartzen dituen joera horrek beste gazteengandik bereiztera behartzen ditu, baita hizkera alderdiari dagokionez ere<sup>5</sup>. Dena den, gazte talde bateko zein bestearen arteko diferentziak gora behe-ra orohar homogeneotasun handia eta barne lotura estua dago gazte taldeen artean, arau berdinak dituzte.

Gaztaroan aurrera egin eta heldutasunera gerturatu ahala, helduen mundu erreferen-tzialera hurbiltze horrek, gazteen disimilazio joerak ahuldu eta helduen artera

<sup>2</sup> Chambers, J.K. (1995) *Sociolinguistic Theory*, Oxford, Blackwell 158-9. or.)

<sup>3</sup> Chambers, J.K. (1995) *Sociolinguistic Theory*, Oxford, Blackwell 172. or.)

<sup>4</sup> Chambers, J.K. (1995) *Sociolinguistic Theory*, Oxford, Blackwell 171. or.)

<sup>5</sup> Chambers, J.K. (1995) *Sociolinguistic Theory*, Oxford, Blackwell 172. or.)

biltzeko asimilazio bideari ekiten zaio, hori hizkerari dagokionez ere nabari da, aurreko aroa emankorra zen bezalaxe hau, sortze lan eta originaltasunari dagokionez, askoz urriagoa da.

Beraz, aipagai dugun giza taldea gaztaroa eragile sozial eta kulturalak direla medio etengabeko aldaketaren menpe dagoen multzoa da, eta era berean gizaki orok ezinbestean bizi behar duen aroa.

## 2.2: Hemen eta orain

Gaztedia, esan dugun guztiagatik, garrantzitsua izan arren, euskarak bizi duen une historikoaren arabera aztertzen saiatu behar dugu baldin eta euskararen etorkizunean gaztediak duen garrantzia behar bezala ulertu nahi baldin badugu.

Euskararen berreskurapen eta normalizazioan azken urteetan emandako urratsei begira (erabilpenari begira emandakoez ari naiz) euskarazko eskolatzeak izugarritzko garrantzia izan du (eremu administratiboan artean egoera oso desberdinak baldin badaude ere) gaur egun Euskal Herriaren historian inoiz izan gabeko euskarazko eskolatze mailak ditugu. Etorkizunari begira, matrikulazio joera sendotuz doazela ikusten dugu, halaber.

Euskarazko kultur produkzioa ere inoiz baino dibertsifikatuagoa, modernoagoa eta indartsuagoa da, euskarririk modernoetan kaleratzen da eta beronen zatirik handiena euskaraz eskolatutako gaztedi horri begira egina da.

Ezagutzari dagokionez, hegoaldean, batz besterik geroz eta gehiago dira euskara ezagutzen duten gazteak, orain dela zenbait urtetako joera gaituzteko bidean gara, beraz. Eta erabilpenari begira ere gazteek geroz eta gehiago erabiltzen dute euskara. Egoera ez da berdina, ordea, E.A.En eta Nafarroan. Azken honetan egoera hoberako bidean baldin bada ere ez baita uste bezain emankorra gertatu. Iparraldean egoera askozaz latzagoa da, gaztedia baita ezagutzari dagokionez adin talderik erdaldunena.

Adin taldeen mailan aldaketak nabari diren bezala bestelakoetan ere nabari dira aldaketak, euskara geroz eta errotuago baitago giro urbanoko gazteen artean eta zenbait inertzia gaituzte bidean baitaude (oraingo neska gazteek, aurreko belaunaldietakoek ez bezala, euskarara jotzen dute<sup>6</sup>).

Adierazle positibo horiek alde batera utzita, ordea, gaztediaren inguruan bada erne egotera behartzen gaituzten hainbat adierazle. Euskararen mendez mendeko biziraupena ziurtatu duen familia bidezko euskararen transmisioa galtzen ari da, hizkuntz ukipen egoeran euskarak gutxiagotua izaten jarraitzen du, horra hor Urola bailaran egindako ikerketak azalera ekarritako elebiduntasun maila euskararen kaltegarri...

Beraz, esandako guztiaren argitan gaztedia da euskararen unibertso horretan nabiga-tzeko prestaturen dagoena eta inork nabigatzekotan gaztediak nabigatu behar du, zurrun-biloz beteriko itsaso horretan. Berreuskalduntze eta normalizazio ahalegin garrantzitsuenen subjektua gaztedia izan da, eta berau da etorkizunean eraginkorrena izango den giza taldea, ez ordea, Euskal Herrian egin ditugun ahaleginengatik soilik baizik eta gaztediak berez dituen ezaugarriengatik.

Euskararen normalizazio prozesuan eskola, komunikabide eta administrazioa eramateak euskara baturaren helburua neurri handi batean bete dela eta euskararen geroa

<sup>6</sup> Ikus: **Amonarriz, Kike (1995)** "Euskararen erabilpenaren feminizazioa". BAT Aldizkaria, 15. alea, 89-97. or.



ziurtaturik dagoela pentsatzera bultza dezakete baten bat. Alegia, Koldo Mitxelena hizkun-tzalari ospetsuak berak, euskara batuaren aldeko erronka aurrera ateratzearena bere eskutan hartzen duenean **irakaskuntza eta administrazioari kode modernotu bat eskaintzeko nahia**<sup>7</sup> du xedetzat, ez, ordea, ezinbestean euskaraz bizitzea beronekin eta euskara batuaren finkatzea eta hedatzea euskararen normalizazioarekin nahasteko arriskua bistakoa da. Ho-rrek, ordea, eta ez gara horretan sartuko, ez du euskararen biziraupena ziurtatzen, ezta euskarari normaltasunik ematen ere, ez gizarte mailan, ez euskaldunen mailan, ez eta gaz-teen mailan ere. Zer dela eta? Hizkuntza bat normalizatzek batasunaren bidetik lortutako estandarizazioa eta zenbait eremutako normalizazioa baino askoz gehiago esan nahi duela-ko. Noski.

Normalizatzek, besteak beste, aldakortasuna normalizatzea esan nahi du, aldaketa hizkuntzaren bilakaeraren muina den bezalaxe hizkuntzaren normalizazioarena ere badelako. Normalizazioak, hizkuntzalaritza mailan ari gara, aldaketa bera eta indar normalizazioak onartzea esan nahi du, diferentzia normaltasunaren ezinbesteko osagaitzat jotzea. Aurrerago ikusiko dugu, ordea, zer nolako aldaketek ari garen.

### 2.3: Hizkera, aldaketaren azala

Hizkuntzaren normalizazioari begira joratu beharrekoen artean *aldaketa* eta *diferentzia* jarri ditugu. Eta horien artean dago, ezinbestean, *hizkera*. Hizkerak hitz egiteko era esan nahi du, beste era batekiko desberdina dena, *diferentea* dena.

Zer berri du, ordea, euskararen kasuan, hizkerari begira jartzeak? Euskalki eta azpieuskalkiak jo izan ditugu euskaldunok diferentziaren paradigmaztat, geroago euskalkien<sup>8</sup> multzo horretan euskara batua, estandarra, sartu dugu. Badakigu, ordea, euskara baturik ez zenean ere herriko apaizari edo botikarioarekin eta lagunekin tabernan ezin zela era berean hitz egin. Beraz, lurralde mailako diferentziek gain garai bateko gizarte mailaren araberrako hizkuntz diferentzien berri badugu, gutxi edo gehiago. Gaur egun, ordea, hiztun gehienon ahotik galdua dugu diferentzia horiek egiteko ohitura edo gaitasuna eta orain hizkuntza estandarren botika erabili nahi dugu hizkuntzaren gabezia guztiak sendatzeko. Hobe ustean zenbat eta zenbat ote gara lagunartean albistegietako esatarien moduan jarduten saiatzen garenak? Berdin egiten dugunak lagun bat edo arrotz baten aurrean? Lehen gizarte harremanen mailako diferentziak hizkuntzaren bidez adierazten baldin baziren ez ote dira orain ere adierazi behar? Erantzun bakarra du galdera honek: BAI. Diferentzia horren itzalean jartzen dugu, bada, HIZKERA hitza; eremu arras korapilatsu honek tresneria zehatzagoa eta zabalagoa eskatzen duela jakin arren. Oraingoan, ordea, honetan utziko dugu. Beraz, hizkera esatean egoerari egokitutako hitz egiteko modua esan nahi dugu. Hiztunak gai izan behar du bere eguneroko bizitzan egoera desberdinetara hizkera egokitzeko, noiz bat eta noiz bestea erabili behar duen jakiteko.

Orain arte esan dugun guztia esanda, hizkuntzaren berezko ezaugarria aldakortasuna baldin bada, gaztedia baldin bada aldakortasun joerarik handiena duena eta euskararen etorkizuna ziurtatu behar duena, eta hizkerak hizkuntz normalizazioan funtsezko elemen-tuak baldin badira, hausnar dezagun zer nolako garrantzia duen gazteen hizkerak, gazteek lagunartean erabiltzen duten hizkerak, gaztearen alderdirik afektiboarekin lotutako hizke-rak. Hizkera mota desberdin ugari egon daiteke gizarte eragile ugari dagoen neurrian, baina, inolako zalantzarik gabe, garrantzia berezia du hemen eta orain gazteen lagun arteko hizkerak. Ez horrek bakarrik noski, baina baita horrek ere.

<sup>7</sup> Michelena, L. (1969) *Euskera*. pp. 139, 205, 206, eta 216. or.

<sup>8</sup>

Inork pentsa lezake euskarak dituen arazo eta erronken tamaina begiratu -bakoi- tzak bere irakurketa egiten du- azaleko kezka dela gurea. Gu ez gatoz bat, ordea, uste horre-kin, are gehiago gai hau euskarak aurrean duen erronka nagusietariko bat delakoan gaude eta horretan bat egiten dugu Joshua Fishmanek esandakoarekin zein hainbat eta hainbat ikerketek adierazitakoarekin. Atzerrian egindako hainbat ikerketek behin eta berriro froga-tu dute<sup>9</sup> haur eta gazteengan eragin handiagoa duela kidekoen hizkerak nagusienak baino eta eredu hau da nagusitzen dena guztien gainetik. Honek, berreuskalduntze eta normaliza-zio estrategietan arreta berezia jartzera behartzen gaitu. Fishmanek berak ere aspaldian erreparatu zion honi. 1988ko artikulua batean honela dio<sup>10</sup>: *“galzori-arriskuko hizkuntzen aldeko leialek “boterearen eta modernitatearen alorra” bereganatzeko (...) planak egiten dituzte sarri baino sarriago. Euskarari dagokionez, horrela, goimailako hezkuntzarako na-tur zientzietako terminologiak lantzen saiatzen dira langintza horrek Auñamendietako bi al-deetan Euskal Herri euskaldun elebakarra berriz sortuko den eguna aurreratuko egingo delako ustean.”*. Eta aurrerago: *“Dena den, larrialdietako lehen laguntza guztietan bezala arteri zain nagusien odoljarrio edo odol galtzea gerarazi behar da horrelakoetan lehenik , arreta nagusia olerki-aldizkarietan, astrofisikan eta nazioarteko botere-politikaren mun-duan nahiz erdi mailako teknologian ipini ordez, Ama hizkuntzaren belaunez belauneko ja-rraipenaren barruti-eremu garrantzitsuenak ez dira, guztiarekin ere, estuegi definitzekoak: aitzitik, sukalde-eskaratzaz eta etxeaz gainera auzoa, oinarrizko eskola, lan-arloa eta, sarri askotan, erlijo-eremuak ere barruti honen barnean sartu behar dira.”*. Gure lana horren lekuko.

<sup>9</sup> Chambersen arabera (Chambers, J.K. (1995) *Sociolinguistic Theory*, Oxford, Blackwell. 168-9 or.) Haurren hizkuntz ereduaz ari delarik honela dio: “ In any case, at this formative period of language development the important influences are families and friends. Where those two influences are at odds with another, as is obvious in extreme cases and presumably presente, though very subtle, in ordinary cases, then there is inevitably tension. The learners normally resolve the tension in favour of their peers.”

<sup>10</sup> (J. Fishman: “Language Spread and Language Policy for Endangered Languages” in Howenberg, Peter H. (ed.) (1988): *Language Spread and Language Policy*. Georgetown University Press. Washinton D.C. edo JAKIN 48: “Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika” (10-11. eta 14. or.)

### 3. Eranskina

#### Zer dira operatzaile pragmatikoak?

Gaiaren inguruko bibliografia behinena arakaturaz Diskurtso Operatzaile terminoa ere agertuko zaigu. Batari buruzko bibliografia zein besteari buruzkoa irakurtzeak ez digute argi handirik egiten, izan ere, bati buruz leku batean esaten dena esaten da besteari buruz beste leku batean. Badirudi, bada, autore bakoitzak bere terminologia eta azalpenak darabil-tzala. Guk, beraz, gure beharretara estuen egokitzen den bibliografia jarraituz bertako terminoa, “Operatzaile Pragmatiko”-arena, alegia, hautatu dugu, bestea ere asegarri zaigun arren.

Bi izan ditugu informazio iturri nagusiak batetik Deborah Schiffrinen<sup>1</sup> *Discourse Markers* eta bestetik *The Encyclopedia of Language and Linguistics*<sup>2</sup>.

Gure helburuetarako egokiagoa zelakoan Entziklopedian “Pragmatic Operators” sarreraren baitan jasotakoa hartu dugu erreferentzia iturri nagusi, ezaugarri nagusiak eta azken urteotako ekarpenak laburbiltzen dituelako. Schiffrinen lana, aldiz, ingelesez erabiltzen den operatzaile multzo zehatz baten azterketa egitera bideratua dagoenez, murriztegia iruditzen zitzaigun. Horren arabera izan da gure hautua.

Entziklopediaren arabera, Operatzaile esatean, bere eragin eremuan dauden beste egitura linguistikoak modifikatzen dituzten espresio linguistikoak ari gara.

Operatzaile Pragmatikoek (OP) ekarpen pragmatikoa egiten dute semantikoa baino, diskurtsoa ulertzeko testuinguru mailako argibideak ematen dizkigute.

Gordinki begiraturaz diskurtsoaren baitan gertatu diren interakzio guztien harian ulertu beharreko mezu metalinguistikoak dira eta solaskideen arteko komunikazioa osatzen dute.

OP-ek aldi berean funtzio bat baino gehiago bete dezakete arestian aipatutako diskurtso maila ezberdinetan (“Beraz”: perpaus amaieran dagoenean, pausaldi baten ondoren, aurretik esandakoak ondorioak direla adierazteko edo solaskideari hitz egiten hasteko bere txanda dela adierazteko balio du).

Beraz, diskurtso operatzaileek diskurtsoaren maila ezberdinak egitura bakar batean biltzen laguntzen dute aniztasunaren erdian eraikuntza koherente bat eginez.

OP motak:

OP-en ezaugarria higadura semantikoa da, sorburuko esanahia higatu edo eraldatu egiten da. Higadura hau forma batzuk beste batzuk baino gehiago jasatan dute. Hona hemen honen arabera sailkapena:

**a) Operatzaile gardenak:** Funtzio nagusia adiera semantikoarekin estu loturik dutenak. Hauek ez dute higadura semantikorik nozitzen. Esaterako: “eta”, “baina”, “beraz”... dira ezagunenak. Adibidez: “eta”. Honen bidez maila bereko bi egitura lot ditza-kegu. Ez da hori, ordea, aukera bakarra. Egitura gehiago erator daitezke, koordinazio hutsa baino zerbait gehiago direnak. Izan ere “eta”k koordinazio loturez gain, perpaus bukaeran

<sup>1</sup> Schiffrin (1987) *Discourse Markers*. Cambridge University Press.

<sup>2</sup> Asher R.E. (1994): *The Encyclopedia of Language and Linguistics*. London, Pergamon Press.

eta solaskideari zuzenduz erabiltzeak beroni erantzun bat eskatzea edo hitza ematea adieraz dezake, propio esaten aritu beharrik izan gabe. Hau, ordea, bigarren multzoan sartu behar da.

**b) Erdimailako operatzaileak:** Jatorri semantikoa bistakoa izan arren, perpaus mailako zenbait erabileratan jatorrizko adiera higitua dutenak eta adiera berri bat dutenak, hauek ulertzeko unean-uneko zehaztapena behar da esanahi hori ezin baita zuzenean eratorri jatorrizko adieratik. Adibidez: *badakizu, denadela, orduan, apurbat...* dira. *Badakizu* esatean bi gauza uler daitezke, biek informazio amankomuna dutela adierazteko edo informazio berri bat eman eta berorren egiazkotasuna azpimarratzeko. Testuinguruaren laguntzarik gabe ezin jakin. OP gehienak mota honetakoak dira.

**c) Operatzaile opakoak:** Ez dute jatorrizko forman adiera semantikorik eta beren diskurtso funtzioa ez da semantikoa. Forma hauek ez dute, jatorrian ere, inolako edukin semantikorik. Adibidez: *oh!, uh!,...* Interjekzioek osatzen dute batez ere, eremu hau.

OP-en artean, ordea, ez dago banaketa honen zorrotz egiterik, izan ere, eremu hau continuum bat da eta forma bakoitzak bere lekua du gardentasun eta opakotasunaren artean. Mutur batean adiera eta uneko erabileraren artean lotura gardena adierazten dutenak leudeke eta bestean, jatorrizko adierarik ez duten formak. Continuum honetan OP bakoitzak leku berezia beteko luke. Erabilpenak, ordea, OP-en adiera eta continuumean betetzen duen lekua alda lezakete.

Kode alternantzia eta nahaste kontuetan egindako ikerketek adierazten dutenez hiztunentzat OP-ak kategoria bereizi eta batuak dira eta elebidunek bi hizkuntzetariko baten ekarpena hautatzen dute funtzio hori betetzeko hizkuntza batean zein bestean mintzo direlarik<sup>3</sup>. Datu hau oso esanguratsua gerta daiteke, izan ere, gurean hizkuntz ukipen egoera oso indartsua da eta batez ere aztergai dugun giza taldean, gazteen artean alegia, hauen kultur eta hizkuntz erreferentzia indartsuenak ukipen egoeran sortuak baitira.

Hauen sailkapena egitean adberbio, konjuntzio eta abar direla esan izan da, horrela izan arren ordea, biziki interesgarria da maila diskurtsiboan ere aztertzea eta funtzioaren arabera antolatzea. Izan ere, OP gehienek, erdibidekoak izaki, testuinguruaren beharra dute indarra izateko, elkarrizketa mailan daude bizien eta batzutan arau sintaktikoak bortxatzen ere hel daitezke. Elkarrizketa maila, arrunt da labainkorra eta nekez topatuko dugu OP-en sailkapenik. Topatuko ditugu, ordea, arestian esan bezala, gainerako sailkapen gramatikaletan kokaturik, baina ez ezaugarri amankomuneko taldea osatzen duten heinean bildurik. Guk gure lanean ere ez dugu halako sailkapenik egingo eta forma zehatzen gaineko azterketa egitera mugatuko gara.

Operatzaileek ez dute eragin bera perpaus mailan ari direnean eta diskurtso mailan ari direnean, beraz, izaera gramatikal berri batez bataiatu beharko ditugu. (Adib: *orain* formak entonazio eta arau desberdinak erabiltzen ditu kasu bat eta bestean). Pentsatzekoa da funtzio sintaktikoren bat izango dutela berez, diskurtso mailan ari direnean, ordea, indarrik gabe gelditzen dena. Izan ere, beronen eragin eremuak ez du egitura sintaktikoekin zuzeneko loturarik. Euren distribuzio sintaktikoa kontuan hartuz sintaxiak kategoria berezi bat aitortu behar die.

<sup>3</sup> Maschler, Y. n.d. "Metalinguaging and discourse markers in bilingual conversations". (Unpublished m.s.) The Encyclopediaren Pragmatic Operators sarreraren egiten zaio aipamena (3250 . or.), eta argitaragabe dagoenez aipamen horretan oinarritu dugu gure esana.

Operatzaile baten menpeko egitura elkarrizketa oso bat bezain luze eta hitz bat bezain labur izan daiteke.

Operatzaile askok funtzio bat baino gehiago bete dezake, beraz, testuingurua ezinbestekoa izan daiteke kasu bakoitzeko esanahia ulertzeko. OP-ek kohesioa sortu baino adierazi egiten dute, alegia, markatzaileak zein komunikazioan agertu diren beste zenbait elementuk osatzen dute mezua, ez berak bakarrik. Erreduanteak direla onartzen badugu hizkuntzaren funtsezko arautzat jo izan den “ahalegin ttikienaren legea”rekin kontraesan ari ote gara? Ezin halakorik esan, izan ere, diskurtso mailan ekoizpen bakoitzak testuinguru zehatz bati eragiten dionez, oraindik ez dakigu zerk eskatzen duen erreduantzia behar bezala komunikatzeko.

Sarri gertatu ohi da elkarrekin zer ikusirik ez duten hizkuntzek antzeko PO-ak izatea. Horrek ez du esan nahi hizkuntza horiek operatzaile berdinak eta adiera berdinekoak dituztenik (edo maiztasun berean erabiltzen dituztenik). Operatzaileek bete beharreko funtzio multzoa, ordea, horrek bai dirudiela unibertsala.

Beraz, funtzio unibertsalak diren arren forma eta maiztasuna, soziokulturalki baldintzaturik daude eta horren araberrako agerpena dute.

Badirudi interjekzio, partikula, deiktiko, denbora adberdio... eta abarrek PO bihurtzeko joera izan dutela hizkuntza askotan. Hizkuntzaren joera da elementuak erabileraren poderioz adiera zehatzetik abstraktura eramatearena (higadura semantikoa) eta hor kokatu behar da OP-en sorrera. Dena den, eremu honetan aldaketa eta mugikortasun handia dago eta erabilpen maiztasunak forma bati OP izaera eman diezaioke, izaera-adiera horrekin ihar-turik gelditu arte, lotura arbitrario bat eraiki arte bien artean. Elkarrizketa mailako inplika-zioak izanez hasitakoa inplikazio konbentzionalak izatera hel daiteke esan dugun bidetik. Adibidez: euskarazko *Aizu*, edo ingeleseko *I Think*.

OP-ak sortzeko bidea gramatikalizazio prozesu bat izan da, testuinguru mailako inferentziak konbentzionalizatu egiten dira. Forma eta funtzioaren arteko harremana sinkronikoki arbitraiorak dira, hein handi batean bederen. Nolabaiteko araudi sintaktikoa bete behar dute distribuzio kontutan. Dena den, mailegua posible denez, beronekin batera, sintaktikoki mugapenen bat dutela pentsatu beharrean gara. Honekin ez dugu esan nahi perpaus egituraren parte bat direnik, izan ere, gogora erreduantzia esandakoa, berauek ez egonda ere perpausa guztiaz baliogarria da. Beraz non kokatzen dira? Inon kokatzekotan diskurtso mailan kokatu behar.

Schiffrinen azalpenak jarraituz OP-ak ulertzeko diskurtso hitzaren adiera ulertu behar da. Diskurtso batean aldaketa, ekintza, idea mailako egiturak, informazio ingurua eta parte hartzeko markoa daude. Operatzaileek osagai horien barruan funtzio bereziak dituzte, baita diskurtso osoaren baitan ere, diskurtsoa sistema den neurrian.

Operatzaileak ulertzeko diskurtso maila eta indexikalitatea (indexikalitatea: diskurtso mailako propietateak eta hizkuntzazkoen konbinazioa -semantika, gramatika-) ulertu behar dira.

Operatzaileen propietate linguistikoak eta diskurtso testuingurua:

\*Diskurtsoaren propietateak: diskurtsoa maila desberdinetan antolatua dago. Maila hauetako zenbait lehentasunezkoak dira eta beste zenbait ez. Markatzaile batek maila desberdinetan batera eragin dezake.

\*Operatzaileen propietateak: operatzaile baten indar komunikatiboa diskurtso mailaren arabera baldin bada ere, bakoitzaren ezaugarri linguistikoek badute eraginik honetan. Joskera zein semantika mailako ezaugarriek zeresana izaten dute. Zenbait operatzaile berezko adiera nabarmen dutela erabiltzen dira (Konjuntzioak, kopulatiboak,...). Testuinguru komunikatibo eta linguistikoak markatzailearen behin betiko adiera mugatzen dute. Operatzaile batek berezko adiera semantikoa izateak eragin zuzena du. Izan ere, kasu horretan bere erreferentzia idea mailan egongo da, eta honelakorik ez duenarena, aldiz, ez-idea mailan.

Operatzaileek, adiera gora-behera, ez dituzte egiturak sortzen, indarrean jarri baizik. Alegia, markatzaileek gabe ere egiturak posible dira, markatzaileek, ordea, posibilitateen artean baten alde egiten dute.

OP baten menpeko egitura zenbat eta luzeagoa izan orduan eta tikiagoa da beronen indar komunikatzailearen ekarpena diskurtso osoaren gain. Era berean, erredundantzia maila zenbat eta handiagoa izan orduan eta tikiagoa da operatzaile bakar baten ekarpena. Horrekin batera, perpaus batek bere baitako mezua igortzen zenbat eta bitarteko gehiago jarri orduan eta maizago desagertzen da operatzailea.

Operatzaileen funtzio indexikoak:

Operatzaileak aztertzeke DEIXIS maila ere azertu beharra dago, operatzaile guztiek funtzio indexikoak dituzte. Perpaus oro ingurumari komunikatibo baten barruan sortua da (igorle, hartzaile, leku, eta denbora). Lau dimentsio hauek sarritan elementu deiktikoen bidez gauzatzen dira (Iz. ord. pertsonalak, denborazko espresioak, lekuzkoak...). Elementu deiktikoen perpaus baten GUNE DEIKTIKOA definitzen dute, komunikazio ekintza baten testuinguru zehatzaren interpretazioa egiten dutenak. Markatu gabekoetan gunea igorlea da. Era berean, gertutasun eta urruntasun mailaren arabera ere sailka daitezke eta honek ez du kokapena soilik adierazteko balio, baita diskurtso mailan eragiteko ere, izan ere, dimentsio honek parte hartzaileak eta testua ere biltzen baititu.

Operatzaile baten potentzialitatea zabala gerta badaiteke ere OP bakoitzak funtzio indexikal bakarra du. Izan ere, perpausaren baitan operatzailea testuinguruz horniturik dago eta horrek aniztasuna galerazten du.

Operatzaile desberdinek funtzio indexikal bera izan dezakete, baina funtzio indexikalak eta diskurtso mailako azterketa egindakoan gutxi dira baliokide izaten jarraitzen dutenak. Eta ezaugarri linguistikoak gehitzean, ez dago markatzaileen artean baliokidetzarik.

Zein ekarpen egiten diote diskurtsoaren koherentziari Operatzaileek? OP-ek perpausa testuinguruari lotzen diote eta hartzailea testuinguru horretan aritzera behartzen.

Zerk egiten du espresio bat operatzaile? Esatea erraza ez bada ere egileak honako baldintza hauek ezartzen ditu:

- \* Sintatikoki perpaus batetik bereizteko modukoa izan behar du.
- \* Bere ohiko lekua perpausaren hasierak izan behar du
- \* Prosodia mailako ezaugarri zenbait izan behar du (azentuazioa, laburdura fonologikoa,...)
- \* Diskurtsoaren maila lokal zein globalean eragiteko gai izan behar du, eta baita diskurtsoaren maila desberdinetan ere.

Bestela esanda, diskurtso batean operatzaile lanetan dabilena beste perpaus batean ere operatzaile izan daiteke, baldintza berdinak errepikatuz gero.

Operatzaileek funtzio integratzailea betetzen dute. Alegia, perpausaren markatzaileak dituen funtzioak betetzeak perpaus hori bere ingurumariari lotzen dio eta horren ondoriozko diskurtsoa integratua da, koherentea, hamaika maila eta dimentsio desberdinen artean adiera bakarra, izaera bakarra ematen baitio perpausa edo bere menpe dagoen diskurtsoaren zatiari.

Diane Blakemore (*Semantic constraints on relevance*)-en ekarpenak ere eremu honetakoak izan dira. Bere ekarpenen artean honako hau jotzen dugu interesgarri:

Testuinguru mailako suposizioak ez dira espreski adierazi ez dena ulertzeko soilik - testuinguru mailako inplikazioak esaterako-, proposizio mailako adiera ulertzeko ere balio dute. Beraz, adierazgarritasunetik hurbilduz diskurtsoan bi koherentzia maila bereiz ditzakegu: a) perpaus baten bitartez jasotako informazioa hurrengo perpausa ulertzeko, berarekin harremanak eraikitzeke erabili behar dugunean sortzen den koherentzia eta b) baten bitartez lorturiko informazioa -diskurtsoa interpretatuz- hurrengoaren testuinguru mailako eraginak ulertzeko erabiltzen denean.

Bi adibide:

Errepidea izozturik zegoen eta irrist egin zuen  
Errepidea izozturik zegoen. Irrist egin zuen.

Bi perpaus hauek behatuz esan dezakeguna da, bietan, kausazko konnotazioak printzipio pragmatiko orokorreari zor zaiela, eta ondorioz, elkarrizketa mailako inplikaziotzat jo behar ditugu.

Argudio honen baitan bi suposizio garrantzitsu daude: a) Pragmatikoki baldintzatuturik dagoen edozer elkarrizketa mailako inplikazioa da, alegia, printzipio pragmatikoek ez dutela ezer egiten esandakoa berreskuratzeko. b) printzipio pragmatikoek perpaus batean bestean bezalaxe balio dutela.

Lehen suposizioak ez du balio, izan ere, printzipio pragmatikoek argitasuna eman behar dute, ilun dagoen informazioa eskuratzen lagundu...

Egileak lokailuen funtzioaren interpretazio bat egiten du. Interesgarria da ezagutzeke zer nolako lana egiten duten lokailuek perpaus barnean eta nola, koherentzia eta relevantzia direla medio gainditzen dituzten perpausaren muga estuak eta eragile bihurtzen diren, estuki dagokien esanahiaz gaindi. Gure ikergaiaren interpretazioa, funtzionamendua azaltzeko baliagarri.

Ekarpen hauen guztien bitartez, eremu honen mugak nola-hala zehazterik lortu badugu ere, gure hautua oraindik gehiago zehaztu nahi nuke. Izan ere, *The Encyclopediak* Operatzaile Garden, Erdimailako eta Opakoak bereizten ditu. Schiffirin eta Blakemorek, aldiz, ez dute halakorik bereizten, eta definizioen arabera Erdimailako operatzaileez ari dira. Guk bi hauen hautuarekin bat eginez *The Encyclopediak* Erdimailako operatzaile deitzen dituen horiek hartu nahi ditugu aztergai. Alde batera utziko ditugu, bada, operatzaile Garde-nak, jatorrizko adiera semantikoari estu lotuta egonik berauen aztertzeak ez dakarrelako aparteko argitasunik, eta era berean, operatzaile Opakoak ere baztertuko ditugu, opakotasun horrek, jatorri lexikorik gabeko soinu horiek komunikazioa eta pragmatikaren ikuspegitik aztertzea interesgarri gerta badaitezke ere, alderdi semantiko, mailegatze eta hizkuntz ukipenaren ikuspegitik hain bistakoak ez direlakoan.

Beraz, esandako guztiaren argitan, OP-ak testuinguru mailan indarra hartzen duten eta diskurtsoa laguntzen duten elementuak direla esango dugu. Gramatikalki jatorri oso desberdinetakoak izan badaitezke ere diskurtso mailan duten balore pragmatikoak izaera propioa ematen die. Gramatikalki, badirudi perpausetik kanpo daudela. Semantikoki ere, higiturik agertzen zaizkigu eta operatzaile lanetan ari direnean izaera semantikoa galtzen dute, batzuk besteek baino neurri handiagoan, denek galtzen dute zerbait, ordea. Gu higiturik agertzen diren operatzaileez ariko gara.

Halaber, interesgarriak iruditzen zaizkigu erdimailako operatzaileak Maschlerren aurkikuntza frogatzeko. Honen arabera, operatzaileak kategoria bereizi direnez, hiztun elebidunek bi hizkuntzetariko baten ekarpena hautatzen dute funtzio hori betetzeko hizkuntza batean zein bestean mintzo direlarik. Gurean hori horrela denentz frogatu nahi izan dugu.



## 4. Eranskina

### Operatzaile pragmatikoen azterketa: Emaitzak xeheago

Zenbaketari ekin aurretik ikus dezagun zein den talde bakoitzeko corpusa eta beraien ezaugarriak zein diren.

#### Euskarazko corpusa:

Formak	Distribuzioa
1. Deputamadre 1	Perpau bati txertaturik ez dagoenean
2. Hostia 3	“
3. Osea 34	“
4. Joder 24	“
5. Esque 28	“
6. Baina 69	“
7. Bada 68	“
8. Eztakit 85	“
9. Igual 48	“
10. Ez 10	“
11. Ez? 24	“
12. Bai 11	“
13. Bai? 1	“
14. Haber 3	“
15. Apurbat 3	“
16. Orain 2	“
17. Dehecho 1	“
18. Vale 1	“
19. Ezta? 3	“
20. Orduan 10	“
21. Hombre 15	“
22. Halaere 2	“
23. Venga 1	“
24. Bueno 10	“
25. Edo 24	“
26. Eta 103	“
27. ya 7	“
28. Claro 5	“
29. Gainera 3	“
30. Eztakizu? 1	“
31. Segun 4	“
32. Queva 7	“
33. No? 3	“

#### Erdarazko corpusa

Forma	Distribuzioa
1. Si 26	Galdera bati erantzuten ez dionean
2. No 70	“
3. O 27	Perpau batean txertaturik ez dagoenean
4. Y 137	“
5. Porque 23	“
6. Aunque 5	“
7. Yo creo 1	Zalantza adierazten duenean eta “
8. Digo yo 3	Zalantza adierazten duenean eta “
9. No? 14	Perpau amaieran, solaskideari zuzentzen zaionean

10. Nose 19	Perpauz batean txertaturik ez dagoenean
11. Pero 174	“
12. Esque 117	“
13. Bueno 33	“
14. Pues 91	“
15. Joder 21	“
16. Osea 65	“
17. Claro 13	“
18. Vale 20	“
19. Oye 19	“
20. Vamos 5	“
21. Hombre 8	“
22. La verdad 2	“
23. Ya 3	“
24. Desdeluego 3	“
25. Mira 5	“
26. Entonces 24	“
27. Entiendes? 1	“
28. Jolines 2	“
29. Queva 1	“
30. Coño 1	“
31. Ves? 2	“
32. Venga 2	“
33. Hostia 1	“
34. Me parece 1	Zalantza adierazten duenean eta “

Corpusaz lehen ondorioak eman aurretik ikus dezagun zein den corpusa hizkuntza bakoitzean jasotako frogatan. Forma bakoitzaren ondoan maiztasuna eta ehuneko bestea daude.

### Corpusa euskaraz eta erdaraz

euskaraz	A tal.	B tal.	erdaraz	C tal.	D tal.
Bai 11 (% 1,79)	5	6	Si 26 (% 2,76)	11	15
Ez 10 (% 1,62)	5	5	No 70 (% 7,44)	46	24
Bai? 1 (% 0,16)	0	1	No? 14 (% 1,48)	6	8
Ez? 24 (% 3,90)	3	21	Esque 117 (% 12,44)	72	45
Esque 28 (% 4,56)	13	15	Pero 174 (% 18,51)	101	73
Baina 69 (% 11,23)	30	39	Pues 91 (% 9,68)	53	38
Bada 68 (% 11,07)	41	27	Nose 19 (% 2,02)	4	15
Eztakit 85 (% 13,84)	48	37	Y 137 (% 14,57)	106	31
Eta 103 (% 16,77)	31	72	O 27 (% 2,87)	16	11
Edo 24 (% 3,90)	9	15	Joder 21 (% 2,23)	8	13
Joder 24 (% 3,90)	13	11	Osea 65 (% 6,91)	21	44
Osea 34 (% 5,53)	20	14	Bueno 33 (% 3,51)	12	21
Bueno 10 (% 1,62)	6	4	Hombre 8 (% 0,85)	5	3
Hombre 15 (% 2,44)	4	11	Aunque 5 (% 0,53)	1	4
Apurbat 3 (% 0,48)	0	3	Porque 23 (% 2,44)	16	7
Orain 2 (% 0,32)	1	1	Claro 13 (% 1,38)	9	4
Claro 5 (% 0,81)	3	2	Vale 20 (% 2,12)	19	1
Vale 1 (% 0,16)	0	1	Ya 3 (% 0,31)	2	1
Ya 7 (% 1,14)	3	4	Entonces 24 (% 2,55)	13	11
Orduan 10 (% 1,62)	9	10	Hostia 1 (% 0,10)	0	1
Hostia 3 (% 0,48)	0	3	Queva 1 (% 0,10)	0	1
Queva 7 (% 1,14)	0	7	Venga 2 (% 0,21)	0	2
Venga 1 (% 0,16)	1	1	Desdeluego 3 (% 0,31)	1	2
Deputamadre 1 (% 0,16)	0	1	Mira 5 (% 0,53)	4	1
Haber 3 (% 0,48)	2	1	Vamos 5 (% 0,53)	1	4

Igual 48 (% 7,81)	32	16	Entiendes? 1(% 0,10)	1	0
Ezta? 3 (% 0,48)	1	2	Jolines 2 (% 0,21)	1	1
Dehecho 1 (% 0,16)	0	1	La verdad 2 (% 0,21)	1	1
Gainera 3 (% 0,48)	3	0	Coño 1 (% 0,10)	1	0
Eztakizu? 1 (% 0,16)	0	1	Ves? 2 (% 0,21)	2	0
Segun 4 (% 0,65)	1	3	Oye 19 (% 2,02)	15	4
No? 3 (% 0,48)	3	0	Digo yo 3 (% 0,31)	0	3
Halaere 2 (% 0,32)	1	1	Yo creo 1 (% 0,10)	0	1
			Me parece 1 (% 0,10)	0	1

Hemen ikusten dugunez forma desberdin kopurua berdina da euskarazko testuan eta erdarazkoan. Alde honetatik begiraturaz, bada, erabilpen maila beretsua dugula esan daiteke. Formen maiztasunari dagokionez, ordea, erdarazkoan maiztasuna % 34,68 handia-go da.

Bataz beste euskarazko taldean solaskide bakoitzak 55,82 forma kopurua erabili du, erdarazkoan, berriz, 94. Datu honetatik inongo ondorioz ateratzeko talde bakoitzaren emaitzak izan behar ditugu kontuan

#### Taldeka bereizia

- A taldea: 28 forma desberdin, 48 forma pertsonako
- B taldea: 31 forma desberdin, 65.2 forma pertsonako
- C taldea: 28 forma desberdin, 109.6 forma pertsonako
- D taldea: 31 forma desberdin, 78.4 forma pertsonako

Hemen ageri denez corpusa berdintsua da talde guztietan, aldatzen dena maiztasuna da. Ez da harritzekoa, izan ere, taldearen edo elkarrizketaren bizitasunaren arabera operatzaile dentsitatea nabarmen alda baitaiteke edozein kasutan.

Honez gain bi zerrendak alderatuz argi ikusten da hitz asko berdinak direla zerrenda batean eta bestean, maiztasun aldetik parekotasun handirik ikusten ez bada ere, bi taldeen diskurtsoan corpus beretsua erabiltzen dutela ikusten dugu.

Azter ditzagun orain euskarazko multzoan ageri zaizkigun formak. Izan ere, erdarazkoan dauden formak erdal jatorrikoak dira huts hutsean, euskarazkoan ageri zaizkigunak, ordea, ez dira euskaratikoak bakarrik.

#### Corpusaren sailkapena hizkuntz erroaren arabera

<b>Erdarazkoak</b>	<b>Euskarazkoak</b>
Joder 24 (% 3,90)	Bai 11 (% 1,79)
Osea 34 (% 5,53)	Ez 10 (% 1,62)
Bueno 10 (% 1,62)	Bai? 1 (% 0,16)
Hombre 15 (% 2,44)	Ez? 24 (% 3,90)
Esque 28 (% 4,56)	Baina 69 (% 11,23)
Claro 5 (% 0,81)	Bada 68 (% 11,07)
Vale 1 (% 0,16)	Eztakit 85 (% 13,84)
Ya 7 (% 1,14)	Eta 103 (% 16,77)
Hostia 3 (% 0,48)	Edo 24 (% 3,90)
Queva 7 (% 1,14)	Apurbat 3 (% 0,48)
Venga 1 (% 0,16)	Orain 2 (% 0,32)
Deputamadre 1 (% 0,16)	Orduan 10 (% 1,62)
Haber 3 (% 0,48)	Ezta? 3 (% 0,48)
Igual 48 (% 7,81)	Gainera 3 (% 0,48)
Dehecho 1 (% 0,16)	Eztakizu? 1 (% 0,16)
Segun 4 (% 0,65)	Halaere 2 (% 0,32)
No? 3 (% 0,48)	
<b>Forma kopurua: 195 (% 32,76)</b>	<b>Forma kopurua: 419 (% 68,24)</b>

Formen erroari erreparatuz bistan da bi heren inguru euskal errokoak direla, eta heren bat, berriz, erdarazkoa. Beraz, lekuko bakoitzak erabilitako hiru formetatik bat erdarazkoa izan zen. Ikus dezagun, orain, maiztasun desberdinak kontuan izanik joera hau berdin mantendu ala aldatu egiten den.

### Formen sailkapena maiztasunaren arabera

Euskaraz (% +2)	Erdaraz (% +2)	Euskaraz (% +5)	Erdaraz (% +5)
Ez? 24 (% 3,90)	Joder 24 (% 3,90)	Eta 103 (% 16,77)	Osea 34 (% 5,53)
Baina 69 (% 11,23)	Osea 34 (% 5,53)	Baina 69 (% 11,23)	Igual 48 (% 7,81)
Bada 68 (% 11,07)	Igual 48 (% 7,81)	Bada 68 (% 11,07)	
Eztakit 85 (% 13,84)	Hombre 15 (% 2,44)	Eztakit 85 (% 13,84)	
Eta 103 (% 16,77)	Esque 28 (% 4,56)		
Edo 24 (% 3,90)			
<b>Forma kopurua: 6</b> <b>Maiztasuna: 373</b> <b>Mult. honetan: % 71,45</b> <b>Mult. osoan: % 60,75</b>	<b>Forma kopurua: 5</b> <b>Maiztasuna: 149</b> <b>Mult. honetan: % 29,55</b> <b>Mult. osoan: % 24,27</b>	<b>Forma kopurua: 4</b> <b>Maiztasuna: 325</b> <b>Mult. honetan: % 79,85</b> <b>Mult. osoan: % 52,93</b>	<b>Forma kopurua: 2</b> <b>Maiztasuna: 82</b> <b>Mult. honetan: % 20,15</b> <b>Mult. osoan: % 13,35</b>

Maiztasunik handienaren arabera, % 2 eta % 5 edo gehiagokoetan, erdarazko formek agertzen jarraitzen dute, nahiz eta beraien maiztasuna eta bataz besteko indarra txikiagotzen joan maiztasuna handitu ahala. Maiztasunik handieneko corpusean hirutik bat erdarazkoa da eta bataz beste, multzo honetako % 20,15a dira eta multzo orokorreko 13,35a.

Dena den, ikus dezagun euskarazko multzo honetan ageri zaigun corpusak zein ezaugarri dituen. Alegia, zein eta zenbat diren kalkoak (mailegu semantikoa). Izan ere, erdararen pisua aztertzean ezin gera gaitezke maileguen azterketan, kalkoak ere aintzat hartu behar ditugu.

### Euskarazko corpusa eta Kalkoak

Euskarazkoak	Kalkoak
Bai 11 - 1,79	Baina 69 - 11,23
Ez 10 - 1,62	Eztakit 85 - 13,84
Bai? 1 - 0,16	Apurbat 3 - 0,48
Ez? 24 - 3,90	Orduan 10 - 1,62
Bada 68 - 11,07	Gainera 3 0,48
Eta 103 - 16,77	Eztakizu? 1 - 0,16
Edo 24 - 3,90	
Orain 2 - 0,32	
Ezta? 3 - 0,48	
Halaere 2 - 0,32	
<b>Forma kopurua: 10</b> <b>Maiztasuna: 248</b> <b>Mult. honetan: % 61,57</b> <b>Mult. osoan: % 40,39</b>	<b>Forma kopurua: 6</b> <b>Maiztasuna: 171</b> <b>Mult. honetan: % 39,43</b> <b>Mult. osoan: % 27,85</b>

Datu hauek aztertuz kalkoen indarra agerian gelditzen da, multzo honetako corpusaren % 37,5a osatzen dute. Maiztasunari dagokionez Euskal errodun formen artean hamarretik lau kalkoak dira eta multzo osoan, aldiz, ia hamarretik hiru.

Datu hauek, ordea, ezin ditugu bere bakarrean hartu, dagokien testuinguruan ulertu behar dira, erdal maileguen ondoan, alegia. Honen arabera:

#### Euskarazko corpusa jatorriaren arabera bereizturik

Maileguak	Kalkoak	Euskarazkoak
1. Esque 28 - 4,56	1. Baina 69 - 11,23	1. Bai 11 - 1,79
2. Joder 24 - 3,90	2. Eztakit 85 - 13,84	2. Ez 10 - 1,62
3. Osea 34 - 5,53	3. Apurbat 3 - 0,48	3. Bai? 1 - 0,16
4. Bueno 10 - 1,62	4. Orduan 10 - 1,62	4. Ez? 24 - 3,90
5. Hombre 15 - 2,44	5. Gainera 3 0,48	5. Bada 68 - 11,07
6. Claro 5 - 0,81	6. Eztakizu? 1 - 0,16	6. Eta 103 - 16,77
7. Vale 1 - 0,16		7. Edo 24 - 3,90
8. Ya 7 - 1,14		8. Orain 2 - 0,32
9. Hostia 3 - 0,48		9. Ezta? 3 - 0,48
10. Queva 7 - 1,14		10. Halaere 2 - 0,32
11. Venga 1 - 0,16		
12. Deputamadre 1 - 0,16		
13. Haber 3 - 0,48		
14. Igual 48 - 7,81		
15. Dehecho 1 - 0,16		
16. Segun 4 - 0,65		
17. No? 3 - 0,48		
Forma des. kop.: 17 (% 51,51) Maizt.: 195 (% 31,75)	Forma des. kop.: 6 (% 18,18) Maizt.: 171 (% 27,85)	<b>Forma des. kop.: 10</b> <b>(% 30,30)</b> <b>Maizt.: 248 (% 40,39)</b>

#### Laburbilduz:

- Forma desberdin kopurua: 33
- Kalko desberdin kopurua: 6
- Mailegu desberdin kopurua: 17
- **Bataz beste erdal jatorriko operatzaileen agerpena corpusean: % 69,7**
- Forma kopurua: 614
- Kalkoen maiztasuna: 171
- Maileguen maiztasuna: 195
- **Erdal jatorriko operatzaileen bataz besteko maiztasuna: % 59,61**

Beraz, mailegu eta kalkoak bilduz erdal jatorriko formak orain arte ikusi duguna baino askoz indartsuago ageri zaizkigu. Alegia, gazte hauen diskurtsoan erdal jatorriko operatzaileak dira nagusi, corpusa zein maiztasunaren aldetik.

Azter dezagun gauza bera taldez talde forma desberdin kopurua eta maiztasuna orohar berdintsuak diren edo alde handiak dauden ikusteko.

**Corpusa eta maiztasuna taldeka azterturik (A eta B taldeak)**

Maileguak A talde.	B tal.	Kalkoak A talde.	B talde.	Euskarazkoak A talde.	B tal.
1. Esque 13	15	1. Baina30	39	1. Bai 5	6
2. Joder 13	11	2. Eztakit 48	37	2. Ez 5	5
3. Osea 20	14	3. Apurbat 0	3	3. Bai? 0	1
4. Bueno 6	4	4. Orduan 9	1	4. Ez? 3	21
5. Hombre 4	11	5. Gainera 3	0	5. Bada 41	27
6. Claro 3	2	6. Eztakizu? 0	1	6. Eta 31	72
7. Vale 1	0			7. Edo 9	15
8. Ya 3	4			8. Orain 1	1
9. Hostia 0	3			9. Ezta? 1	2
10. Queva 0	7			10. Halaere 1	1
11. Venga 1	0				
12. Deputamadre 0	1				
13. Haber 2	1				
14. Igual 32	16				
15. Dehecho 0	1				
16. Segun 1	3				
17. No? 3	0				
Kopurua: A F*: 13 (% 50) M*: 102 (% 35,30) B F: 14 (% 48,28) M: 93 (% 28,62)		Kopurua: A F: 4 (% 15,38) M: 90 (% 31,14) B F: 5 (% 17,24) M: 81 (% 24,92)		Kopurua: A <b>F: 9 (% 34,62)</b> <b>M: 97 (% 33,56)</b> B <b>F: 10 (% 34,48)</b> <b>M: 151 (% 46,46)</b>	

\* F: Formak / \*M: Maiztasuna

Hemen ikusten dugunez forma kopuru eta maiztasun kopuruak taldez-talde nahikoa orekatuak dira. Forma desberdin kopuruari dagokionez, gutxi gora-behera heren bat da euskarazkoa bi multzoetan, eta maiztasunari dagokionez, beste hainbeste. Aipatzekoa da, ordea, azken kasu honetan B taldeak A taldeak baino euskarazko forma gehiago erabiltzen duela. Aldeak, dena den, ez dira nabarmenegiak. Beraz, taldekako kopuruek kopuru orokorretan lorturiko emaitzak frogatzen dituzte, alegia, euskarazko formak gutxiengo direla diskurtso operatzaileen eremuan.

Multzo nagusian bezala ikus dezagun orain maiztasunik handieneko multzoetan joera hau mantentzen den.

**Euskaraz erabilitako formak Maiztasunaren arabera (% +2)**

Maileguak	Kalkoak	Euskarazkoak
1. Esque 28 - 4,56	1. Baina 69 - 11,23	1. Ez? 24 - 3,90
2. Joder 24 - 3,90	2. Eztakit 85 - 13,84	2. Bada 68 - 11,07
3. Osea 34 - 5,53		3. Eta 103 - 16,77
4. Hombre 15 - 2,44		4. Edo 24 - 3,90
5. Igual 48 - 7,81		
Formak: 5 (% 45,45) Maiztasun.: 149 (% 28,54)	Formak: 2 (% 18,18) Maiztasuna: 154 (% 29,5)	<b>Formak: 4 (% 36,36)</b> <b>Maiztas.: 219 (% 41,95)</b>

### Euskaraz erabilitako formak Maiztasunaren arabera (%5)

Maileguak	Kalkoak	Euskarazkoak
1. Igual 48 - 7,81	1. Baina 69 - 11,23	1. Bada 68 - 11,07
2. Osea 34 - 5,53	2. Eztakit 85 - 13,84	2. Eta 103 - 16,77
Formak: 2 (% 33,33) Maiztasuna: 82 (% 20,14)	Formak: 2 (% 33,33) Maiztas.: 154 (% 37,83)	<b>Formak: 2 (% 33,33)</b> <b>Maiztas.171 (% 42,01)</b>

Bi taula hauetan ere taula nagusian ageri zen egoera bera ikusten dugu. Erdal jatorriko formak nagusi. Bataz besteko kopuruak ere berdin-berdin mantentzen dira. Beraz, erdal jatorriko formak maila guztietan dira indartsuenak.

#### *Ondorioak:*

Beraz, esandako guztia laburbilduz, gazteen lagunarteko euskararen Operatzaile Pragmatiko ugari dagoela ikusten dugu eta halaber eremu hau neurri handi batean erdaratik elikatzen dela, ez corpusari dagokionez bakarrik, baita maiztasunari dagokionez ere. Eta formarik indartsuenak euskarazkoak izan arren (bada, eta...) eremu osoan gutxiengo dira.

Azterketa hau oso mugatua eta oinarritzkoa den arren, euskarazko eta erdarazko multzoetako corpusaren arteko parekotasunak, zein euskarazko taldeen corpus eta maiztasun mailakoak ikusirik, kasualitate hutsa baino zerbait gehiago badagoela pentsatzera bul-tzatzen gaituzte. Alegia, gazteen lagunarteko euskararen gainerako eremuetan hautematen den bezala, honeta ere, erdal corpusa eta erdal erreferentziak direla aberasteko bide bakarra. Honek Manschler-en teoria<sup>1</sup> frogatzen du nolabait -zeharkako erreferentzien bidez besterik ez baitugu ezagutzen-, izan ere, berak esan bezala, euskararen kasuan ere, ukipen egoera batean hiztunek hizkuntza bat edo besteko corpusaren alde egiten dutela ageri baita –bere azalpenaren arabera, hiztunek multzo hau multzo bateratutzat jotzen dute eta ez dute bereizten jatorria erabiltzeko orduan, beraz ukipen egoeran hizkuntza indartsuena nagusitzen da–. Alegia, espainolaren alde egin dutela gurean, hizkuntza boteretsuenaren alde.

Operatzaile pragmatikoez ari gara eta ez ditugu bakoitzaren funtzioak aztertu. Bistan da, hemen egin duguna baino askoz azterketa sakonagoa eta interesgarriagoa egin zitekeela baldin eta operatzaileak corpusaren arabera soilik sailkatu ordez, adiera eta funtzioaren arabera ere sailkatu izan bagenitu. Horrela eginez ziurrenik, erdal ekarpena hemen ageri dena baino harago doala ikusiko genuke edo Janet Holmesen ekarpenari<sup>2</sup> jarraituz (1995), eta kulturarteko konparaketa eginez, bi kulturen arteko alderik islatzen den aztertu. Orain-goz ordea, bere horretan utziko dugu, eremu aski labainkorra baita eta euskaraz eremu hau aztertu gabe duenez, arras arriskutsua inolako ondorioren bila abiatzea. Utz dezagun, bada, honetan esandakoa operatzaileen inguruko hurrengo azterketari gaia jarrita.

<sup>1</sup> **Manschler, Y n.d.** "Metalinguaging and discourse markers in bilingual conversations" (Unpublished m.s.) R.E. Asher-en *The Encyclopedia of Language and Linguistics*-eko Pragmatic Operators sarreraren pean (3250. or.) egiten zaion aipamena da ezagutzen dugun bakarra eta horretan oinarritu gara. Honi buruz jakin beharrekoak jakiteko ikus sarrera 1.5 puntua eta Operatzaile Pragmatikoez mintzo den eranskina.

<sup>2</sup> **Holmes, J (1995):** *Women, Men and Politess.* London, Longman

## 5. Eranskina

### Lekukoen fitxategia

Ondoren datorrena ikerketako grabazioetan parte hartu duten lekukoen fitxategia da. Bertan bakoitzaren datuak kodifikaturik daude. Lekuko bakoitza zenbakiz identifikaturik dago.

**Zenbakia:** Identifikazio zenbakia

**Herria:** Lizarra (Liz.), Arrasate (Ar. 2) , Altsasu (Alts.), Arrasate1 (Ar. 1), Dima, Galdakao (Gald.), , Segura (Seg.), Portugalete (Portu.)

**Sexua:** 0 (gizonezko) 1(emakume)

**Ikasketak:** oinarrizkoak erdaraz 0, euskaraz 1, ertainak ere euskaraz 2, unibertsitatean ere euskaraz 3

**Etxean euskaraz:** ez 0, bai 1, bietan 2

**Kalean euskaraz:** bai 1, ez 0, bietan 2

**Euskarazko produkzioaren jarraipena:** Hutsa 0, handia 1, kaxkarra 2

Lekukoa	Herria	Adina	Sexua	Ikasketak	Etxean	Kalean	Euskal produk.
01	Liz.	22	0	1	0	1	1
02	Liz.	22	0	1	0	0	0
03	Liz.	20	1	2	0	0	1
04	Liz.	21	1	2	0	0	1
05	Liz.	21	1	2	2	0	1
06	Ar. 2	18	1	2	1	1	1
07	Ar. 2	18	1	2	1	1	1
08	Ar. 2	19	1	2	1	1	1
09	Ar. 2	22	0	1	1	1	1
10	Ar. 2	18	1	2	1	1	1
11	Alts.	16	1	2	0	0	1
12	Alts.	16	1	2	0	1	1
13	Alts.	16	1	1	0	0	1
14	Alts.	16	1	1	0	0	1
15	Arr. 2	25	0	3	1	2	1
16	Ar. 1	21	1	3	1	1	1
17	Ar. 1	21	1	1	1	1	1
18	Ar. 1	21	1	2	1	1	1
19	Ar. 1	21	0	2	1	1	1
20	Ar. 1	19	0	3	2	1	1
21	Dima	21	0	2	0	0	1
22	Dima	20	0	1	1	0	2
23	Dima	21	0	1	1	0	1
24	Dima	21	1	2		0	2
25	Dima	22	1	2	1	0	2
26	Gald.	19	0	2	1	1	1
27	Gald.	19	1	3	1	1	1
28	Gald.	19	1	3	0	1	1
29	Gald.	19	0	3	1	1	1
30	Gald.	19	0	3	1	1	1
31	Gald.	19	1	3	1	1	1
32	Seg.	21	0	1	1	1	1
33	Seg.	21	1	3	1	1	1
34	Seg.	19	0	2	1	1	1
35	Seg.	19	0	2	1	1	1
36	Seg.	20	1	2	1	1	1
37	Portu	18	0	2	0	0	1
38	Portu	19	0	3	0	0	1
39	Portu	18	0	3	0	0	1
40	Portu	18	0	3	0	0	1
41	Portu	18	0	2	0	0	2
42	Portu	18	0	3	1	0	1
43	Portu	18	0	2	0	0	1



## 6. Eranskina

### Formulak

Ondoren datorrena gure dokumentazioan agertutako formulen zenbaketa da. Forma bakoitzak ondoan duen zenbakiak maiztasuna adierazten du

euskarazkoak	maileguak	kalkoak
1. Nire ustez 78	1. queva 12	1. bada hori 43
2. hori da 20	2. lo que sea 11	2. ez dakit zer 16
3. ados egon 9	3. no se que 13	3. eta hori 23
4. azken finean 15	4. ahí va 7	4. pila bat 21
5. eta kitto 9	5. ya esta 4	5. adarrak jarri 19
6. dena dela 5	6. yo que se 4	6. eta dena 18
7. bapatean 1	7. de puta madre 4	7. eta punto 3
8. eman dezagun 4	8. por ejemplo 3	8. edo hori 3
9. adarra jo 4	9. y tal 2	9. azken batean 3
10. batez ere 5	10. por si acaso 2	10. neurriak hartu 2
11. azken finean 15	11. buscarse la vida 2	11. eskua sartu 2
12. gaur egun 7	12. a casarla 1	12. azken hitza 2
13. argi eta garbi 3	13. tocar los cojones 1	13. inoren eskutan egon 3
14. gutxi gora behera 2	14. poner los cuernos 1	14. pues hori 2
15. dena den 1	15. no te jode 1	15. eta badago 3
16. kokoteraino egon 2	16. no se cuanto 1	16. paso eman 2
17. larrua jo 2	17. para rato 1	17. ez dakizu 2
18. eskerrik asko 1	18. ni por el forro 1	18. saltar golpera 1
19. inoren lepotik 2	19. menage à trois 1	19. eta horrela 8
20. gero gerokoak 3	20. más o menos 1	20. puntu hori heldu 1
21. zeredozer 1	21. las de Dios 1	21. ordutik aurrera 1
22. pikutara bidali 1	22. hijo de puta 2	22. ona2 egon 1
23. mutur hautsi6 1	23. de regalo 1	23. nire partetik 1
24. lehengo eta behin 1	24. al culo del mundo 1	24. mundua gainera jausi 1
25. lege txarreko 1	25. comerse el marron 1	25. inoren airera ibili 1
26. inoren kontu bizi 1	26. comerse el coco 2	26. hori segun 1
27. inoren gain hartu 1	27. de repente 2	27. hori hasteko 1
28. inoren atzetik ibili 1		28. hasiera batean 1
29. hori ba 9		29. gutxienak 1
30. hara bestea 1		30. gehiegira joan 1
31. burua erre kara bota 1		31. gauza argi utzi 1
32. argi ibili 1		32. gauetik goizera 1
33. antzarrei begira 1		33. gaizki hartu 1
34. eta kitto 3		34. edo horrela 5
35. pikutara joan 1		35. eta hori guzti 1
36. aurrera atera 7		36. eta fuera 1
37. alde egon 4		37. esaten joan 1
38. ospa egin 2		38. burua eduki 1
39. alde egin 2		39. bueltak eman 1
40. kargu egin 4		40. beltza eduki 1
41. parte hartu 5		41. asko esan eta gero kaka 1
42. kargu egon 3		42. printzipioz 1
43. txortan egin 1		43. tiratuta gelditu 1
44. ondo joan 1		44. ni naizenarekin 1
45. kargu hartu 1		45. gaizki pentsatu 4
46. aurrera joan 1		46. esku bat bota 1
47. pikutara joan 1		47. garbi jarri 4
		48. kargu egin 4
		49. aurrera atera 10

		50. kontuan hartu 3
		51. jakinean egon 2
		52. kontuan eduki 1
		53. berdin izan 9
		54. ume eduki 13
		55. suerte ukan 1
		56. serio hartu 1
		57. sartu erdian 1
		58. rolloan egon 1
		59. paso egin 1
		60. ondo ikusi 4
		61. mundura ekarri 2
		62. kontuan eduki 1
		63. burura etorri 1
		64. buruan sartu 1
		65. aurrera eraman 1
		66. aurpegira bota 1
		67. argi izan 1
		68. pauso eman 1
		69. fuerte egin 1
		70. denboraz ibili 1
<b>Formak: 47 (% 32,63)</b> <b>Maiztasuna: 245</b> <b>(% 40,56)</b> <b>Maizt pertsonako: 4,8 f</b> <b>(% 40,57)</b>	Formak: 27 (% 18,75) Maiztasuna: 83 (% 13,74) Maiz. pertsonako: 1,62 f (% 13,69)	Formak: 70 (% 48,61) Maiztasuna: 276 (% 45,69) Maizt. pertsonako: 5,41 f (% 45,73)

### Formulak subjektuka, formula desberdin kopurua eta maiztasuna

